



# **EUSKO JAURLARITZAREN EGITEKOA ESKUALDEETAKO LANTALDEAN**

## **2010. URTEKO BALANTZEA**



**Gasteizen, 2010ean**

## AURKIBIDEA

	<b>Orrialdea</b>
<b>SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>ESKUALDEETAKO LANTALDEAREN 5. AGINTALDIAREN INAUGURAZIOA (2010-2015)</b>	<b>7</b>
<b>ESKUALDEETAKO LANTALDEKO PRESIDENTEAK EUSKADIRA EGINDAKO BISITA INSTITUZIONALA</b>	<b>10</b>
<b>OSOKO BILKURAK.....</b>	<b>11</b>
- 83. Osoko Bilkura	
- 84. Osoko Bilkura	
- 85. Osoko Bilkura	
- 86. Osoko Bilkura	
- 87. Osoko Bilkura	
<b>AHOLKULARITZA-LANA</b>	
<b>1. Iritzi-eskaerak jaso dituzten Eusko Jaurlaritzaren sailak eta haien jarrera</b>	<b>24</b>
- Sailak eta landutako gaiak	
- Kontsultatutako sailak eta haien emandako erantzunak	
- Sailen erantzun-mota	
<b>2. Jarreraren defentsa: Eusko Jaurlaritzaren zuzenketak</b>	<b>28</b>
- Idatzitako, aurkeztutako eta onartutako zuzenketak	
- Onartutako zuzenketen ehunekoak	
<b>3. Beste eskualdeek egindako zuzenketen aurkezpen bateratua</b>	<b>30</b>
<b>4. Gai nagusien inguruko berriazko kontsultak</b>	<b>33</b>
- <b>Europa 2020 Estrategiari dagokionez</b>	
- Europa 2020aren inguruko iritzia	
- Eskualdeen partaidetza Erreforma Plan Nazionalan	
- «Batasuna berrikuntzaren alde» ekimen bereizgarria	

- **Mugaz haraindiko lankidetzaren esparruan**
  - Lurralde Lankidetzarako Europako Taldearen (LLET) araudiaren berrikuspena

**5. Subsidiariorotasunaren azterketa 38**

- **2009-2010 Ekintza Plana**
  - Subsidiariorotasuna gizarte-berrikuntzan Ikerketa-bisita Finlandiara
  - Subsidiariorotasuna energia/klima-aldaketan
- **Gai hauen inguruko kontsultak:**
  - Politika ekonomikoen koordinazioa
  - Bide-segurtasuna
  - Biodibertsitate-politika

**ERKIDEGOKO PROZESU ERABAKITZAILEAN ESKU HARTZEKO BESTE TRESNA BATZUK**

<b>6. Autogintzaren krisiari buruzko eskualde-arteko taldea</b>	<b>48</b>
<b>7. REGLEG-CALRE eskualde-arteko taldea</b>	<b>51</b>
<b>8. Europako alderdi politikoak eta Espainiako delegazioa</b>	<b>52</b>

**APARTEKO JARDUERAK**

<b>9. «Euskadi» turismo-markaren aurkezpena Bruselan</b>	<b>54</b>
<b>10. Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako urtea</b>	<b>55</b>
<b>11. «Kultura, tokiko eta eskualdeetako garapen ekonomikoaren motorra » mintegia</b>	<b>57</b>

**OPEN DAYS JARDUNALDIAK**

<b>13. Europako Eskualde eta Hirien VIII. Astea</b>	<b>58</b>
---	-----------

<b>ONDORIOAK</b>	<b>61</b>
------------------	-----------

## SARRERA

Eskualdeetako Lantaldea (EL) Europar Batasuneko eskualdeak eta udalerriak ordezkatzen dituen organo ofiziala da. Maastrichteko Tratatuaren ondorioz sortu zen, 1992an, eta handik bi urtera ekin zion ibilbideari. Harrezkero, gero eta kontsulta-botere eta eragin handiagoa du, bai Erkidegoko legediari buruzko kontsultak jasotzeko, bai Europako politikako gai-zerrendako arazo garrantzitsuenak ebazten laguntzeko.

Batasuneko kide diren 27 herrialdeetako eskualdeetako 344 presidente, alkate, zinegotzi, kontseilari eta abar biltzen ditu Eskualdeetako Lantaldeak. Haien egitekoa Bruselara joan eta ordezkatzen dituzten herritarren ikuspegiak nahiz interesak defendatzea da. Horrenbestez, gaur egun, Batzordeak edo Kontseiluak nahitaez jaso behar dute Eskualdeetako Lantaldearen iritzia zenbait jarduera eremuren kasuan, horiek eskualdeetako eta tokiko eskumenetan eragina dutenean edo ondorioak izan ditzaketenean.

Lisboako Tratatuaren indarrean sartu zenetik, hauek dira derrigorrez kontsultatu beharreko eremuak: garraioa, enplegua, gizarte-politika, Europako Gizarte Funtza, hezkuntza, lanbide-heziketa, gazteria eta kirola, kultura, osasun publikoa, Europa barneko sareak, ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koherentsia, eta ingurumena eta energia. Hartara, EBko jarduera gehienak hartzen dira aintzat. Derrigorrezko kontsulta horiez gain, Kontseiluak, Batzordeak, eta Europako Parlamentuak kontsulta diezaiokete Komiteari, hala nahi izanez gero. Eskualdeetako Lantaldeak, halaber, iritzia eman dezake bere ekimenez, egoki irizten badio.

Iritzi horiek irizpenen bidez ematen ditu Eskualdeetako Lantaldeak, eta, ondoren, Batzordera, Kontseilura eta Europako Parlamentura bidaltzen. Irizpenak emateaz gain, txostenak egin eta ebazpenak ematen ditu. Bitarteko horiek guztiek hau dute helburu: Erkidegoko legediak udalerrietan eta eskualdeetan duten eragina adieraztea, EBko gai-zerrendan Eskualdeetako Lantaldeak gaiak eransteko aukera izatea, eta unean uneko arazo politikoei buruzko iritzia ezagutaraztea.

Denboraren joanean, hainbat tratatu hitzartu dira, eta horien bidez Eskualdeetako Lantaldeari gero eta garrantzi handiagoa eman zaio; hain zuzen ere, ondoko arrazoi hauengatik: batetik, eskualdeek eta udalerriek Erkidegoko legediaren hiru laurden aplikatzeko ardura dutelako; eta, bestetik, ezinbestekoa delako herritarrek Erkidegoko proiektuan inplikatzeko, hurbilen dituzten ordezkarien bidez.

Eskualdeetako Lantaldeko kide guztiak beren eskualdean bizi dira, eta bertan egiten dute lan; hau da, dagozkien ardurak beren lurraldean betetzen dituzte, eskualdeko presidente zein alkate izan. Horrela, ordezkatzeko dituzten herritarren kezka gertu-gertutik ezagutzeko aukera izaten dute. Horrenbestez, Komiteko kideek bi egiteko dituzte. Batetik, Bruselara joaten direnean herritarren interes zuzenak defendatzea – izan ere, han daudenean, Erkidegoko erabakiak sortzeko prozesuan hartzen dute parte–. Eta, bestetik, herritarrei EBn gertatzen den guztiaren berri ematea.

Euskadiko kide titularra, Eskualdeetako Lantaldean, Patxi LÓPEZ lehendakaria da: 2009ko irailean izendatu zuten bertako kide. Ordezko kidea Guillermo ECHENIQUE izan zen 2010ean; Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia zena, alegia.

Eusko Jaurlaritzak Eskualdeetako Lantaldean jardun ahal izateko, alde zuzenetatik aritu beharra dauka lanean. Batez ere, Jaurlaritzako sailen iritzia eta Europako legeak aldatzeko proposamen zehatzak bildu behar ditu, ondoren Bruselan defendatzeko.


Hau da Eusko Jaurlaritzaren barne-prozedura<sup>1</sup>:

- Irizpenak Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik (Lehendakaritza) Jaurlaritzaren gainerako sailera, beren organismo autonomoetara edo EUDELera bidaltzea.
- Sailek Lantaldearen irizpenei buruz daukaten iritzia jasotzea.
- Zuzenketa zehatzak aurkeztea. Horretarako, beste eskualde batzuen babesa jaso behar du.
- Bruselan *lobby* eta zuzenketak defendatzea.

Europako araudiari zuzenketak aurkezteaz gain –horixe du parte hartzeko modu nagusia, eta Euskadiren ikuspegia Erkidegoko erakundeetan ezagutarazteko bide garrantzitsuena–, Euskadik beste jardura garrantzitsu batzuk ere egin ditu Eskualdeetako Lantaldearen bidez. Txosten honetan bertan daude jasota horiek guztiak.

---

<sup>1</sup> Ikus hurrengo orrialdeko grafikoa.



## ESKUALDEETAKO LANTALDEAREN 5. AGINTALDIAREN INAUGURAZIOA (2010-2015)

2010. urtean, Eskualdeetako Lantaldeak agintaldi edo legegintzaldi berri bati eman zion hasiera; zehazki, 1994ko martxoan sortu zenetik bosgarrenari. Lantalde hau 2015era arte egongo da indarrean, Lisboako Tratatuan Europako gainerako erakundeen agintaldira egokitzeko 4 urtetik 5 urtera luzatzeko mandatuari jarraiki.

Agintaldi berri honek xedatzen duenaren arabera, Eskualdeetako Lantalde berria sortu behar da –EBko Ministro Kontseiluak izendatu behar ditu bertako kideak– eta karguak berritu egin behar dira (presidentea, lehenengo presidenteordea, hogeita zazpi presidenteordeak eta Mahaiko kideak), alderdi politikoetako presidenteak mahaiko kide izateko berrespena eman behar da, eta sei batzorde iraunkorrak nahiz *ad hoc* batzordeak berritu egin behar dira.

Berritze honen ondorioz, honako hauek dira Eskualdeetako Lantaldeko ordezkari gorenak: presidentetzan, Mercedes BRESSO andrea egongo da, eta lehenengo presidenteorde modura VALCÁRCEL SISO jauna. Agintaldiaren bi urte eta erdi betetzerakoan, trukatuko dituzte karguak.

Eskualdeetako Lantaldea EBko eskualdeen eta hirien biltzar politikoa da. Maila anitzeko gobernantzaren barruan, historian zehar aldaketa ugari jasan ditu eskumenei, ikusgarritasunari eta baliabideei dagokienez. 2009ko abenduan indarrean sartu zen Lisboako Tratatu berriak birkonfiguratu eta indartu egin ditu Europar Batasuneko eskualde- eta toki-eremuak, eta berrikuntza garrantzitsuak ekarri ditu Lantaldearen erakunde-jardueran.

Aldaketa horien eraginez, agintaldian dagoen bitartean funtzionamendu politikoa eta administratiboa erakundearen zein kideen ikuspegitik berrantolatzeke erantzukizuna hartu du bere gain Lantaldeak.

Politikaren ikuspuntutik, eta 2009ko apirilaren 21ean onartutako Eskualdeetako Lantaldearen Eginkizunaren Adierazpenari jarraiki <sup>2</sup>, hurrengo helburu estrategikoak ditu Lantaldeak:

1.- Lantaldearen estatusa biltzar politikoarena dela onartzea, eta Europako eztabaidan eskualdeetako eta tokiko erakundeen ordezkari gisa egiten duen lana sendotzea, Lantaldea Europar Batasuneko lurraldeen, eskualdeen, hirien eta udalerrien ordezkari instituzionala baita.

<sup>2</sup> Eskualdeetako Lantaldea, 56/2009 azkena.

2.- Lantaldeak politikak egiteko duen potentziala garatzea, Erkidegoko prozesu erabakitzailean lehenbailehen esku-hartzea sustatuz. Erkidegoaren legediari dagokionez, gomendio politikoak eta proposamen zehatzak egiterakoan Lantaldeak egiten duen lanaz baliatzean datza, eskualdeetako eta tokiko erakundeen esperientzian eta ezagupen teknikoan oinarrituta.

3.- EBren erreferentzia politikoa izatearen alde egitea, honako hauei dagokienez: subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak betetzea, ondo gobernatzea, lege hobeak egitea eta deszentralizazio-prozesuak ikuskatzea.

4.- Europako hiri zein eskualdeetan, Europar Batasunari buruzko komunikazioa bideratzea, eta herritarrak Europako eztabaidan parte hartzera bultzatzea, Europak eskualde eta hirietatik duen urruntasunari aurre egiteko.

5.- Europako Batzordearekin, Europako Parlamentuarekin eta Europar Batasuneko Kontseiluarekin erakunde-harremanak indartzea, baita lurralde izaera duten Europako elkarteekin eta subsidiaritasunari dagokionez, eskualdeetako batzar legegileekin ere.

Antolakuntza-ikuspegitik, badira erakunde honen funtzionamendua baldintzatu duten beste gertakari batzuk; esaterako, agintaldi honetan zehar egingo den EBren hedapen berria eta krisi egoerak baldintzatutako aurrekontu-esparru murriztua. Egoera ekonomiko eta sozial horren eraginez, Eskualdeetako Lantaldeak mugatu egin behar izan ditu bere jarduerak, eta indartu egin ditu funtsezko dituenak.

Egokitzapenaren ondorioz, Lantaldeko sei batzordeen eskumenak aldatu egin dira; hala, aurreko batzordeen esku zeuden erakunde-gaiak eta kanpo-harremanak kudeatzeko funtzioak batu, eta Herritarren, Gobernantzaren eta Erakunde eta Kanpo Gaien Batzordea (CIVEX) eratu da. Bestalde, Garapen Iraunkorreko Batzordearen funtzioak dibertsifikatu, eta bi batzorde berri sortu dira: Baliabide Naturalen Batzordea (NAT), eta Ingurumen, Klima Aldaketa eta Energia Batzordea (ENVE). Horrela, are indar handiagoa eman zaie energia eta ingurumen gaiei. Gainerako batzordeek (ECOS, COTER eta EDUC) 4. agintaldian zuten izen berbera mantendu dute, eta, kasu guztietan, edukiak hedatu eta aldatu egin dira<sup>3</sup>.

Europako eskualdeek eta hiriek, halaber, berrantolatu egin dute batzordeetan duten partaidetza. Batzordeen banaketa estatu-delegazioetan egiten da. Espainian, adibidez, autonomia erkidego bakoitzak gehienez ere bi batzordetan parte hartu ahal izango du. Batzorde iraunkor bakoitzean, berriz, Espainiako zazpi kide izango dira gehienez ere.

---

<sup>3</sup> Ikus I. eranskina.



Hala, agintaldi berri honetan, ENVE Batzordeko kide izango da Euskadi (Ingurumena, Klima Aldaketa eta Energia Batzordea), eta ECOS Batzordean jarraituko du (Politika Ekonomikoaren eta Sozialaren Batzordea).

Agintaldi aldaketak, bestalde, ez du aldaketa garrantzitsurik ekarri mahaiko eta batzordeetako lantaldeen konfigurazioan, aholku-lantalde mistoen agintaldian edo harreman-taldeetan. Horiek guztiak berritu egin dira, eta talde batzuetako presidentetzan edo beste karguetan baino ez dira gertatu aldaketak.



Eskualdeetako Lantaldearen egoitza, Bruselan.

## **ESKUALDEETAKO LANTALDEKO PRESIDENTEAK EUSKADIRA EGINDAKO BISITA INSTITUZIONALA (2010EKO AZAROA)**

Eskualdeetako Lantaldeko presidentea, Mercedes Bresso andrea, Euskadin izan zen 201eko azaroaren 23an eta 24an. Patxi López lehendakariarekin elkartu zen, eta gure lurraldeko beste erakundeen ordezkariarekin bildu.

Gipuzkoako hiriburuan hasi zuen bisita, eta Donostiako udaletxean Odón Elorza alkateak egin zion harrera, Marisol Garmendiarekin eta Eva Salaberriarekin batera (2016an Donostia Europako Kultur Hiriburua izateko hautagaitzaren arduraduna eta koordinatzailea, hurrenez hurren). Hiriaren apustu horretan Euskadiko erakundeek Europan eta kulturaren duten uste osoa adierazten da, eraldatzeko, garatzeko eta elkarbizitzarako motorrak eta garapen ekonomiko eta hirien birsortze iraunkorraren sustatzaileak direlakoan baitaude.

Hurrengo egunean, Patxi López lehendakariak Gasteizko Ajuria Enea Jauregian hartu zuen Bresso andrea. Lan-bilera egin ondoren, prentsurrekoa eman zuten, eta Euskadik Eskualdeetako Lantaldeari begira 2011rako hartutako bi konpromisoak ezagutarazi zituzten: subsidiariorotasunari buruzko Europako goi-bilera Bilbon antolatzea, eta XX. mendeko industria-politikaren inguruan Europako eskualde eta hirien txostengile eta ordezkaria izateko lehendakaria bera izendatzea. Lehendakariak esandakoaren arabera, bi konpromiso horiek Europako toki «gailenean» jartzen dute Euskadi.

Ondoren, Eusko Legebiltzarreko presidente Arantza Quiroga andrearekin bildu zen Bresso andrea, erakundearen egoitzan, atek itxita. Bilera horren ostean, Patxi Lazcoz Gasteizko alkatearekin eta Guillermo Echenique Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarekin bazkaldu zuen.

Arratsaldean, Europa Kongresu Jauregian izan zen, Kaleidos.red Fundazioak antolatutako Europako Lehen Kongresuaren inaugurazioan, «Gertutasuna, parte-hartzea eta herritarrak» deitutakoa. Alkatea eta beste erakundeetako ordezkariak ere bildu ziren bertan. Eskualdeetako Lantaldearen presidentek nabarmendu zuen Europa eraikitzeke prozesuan herritarrek eta maila anitzeko gobernantzak duten eginkizuna eta autogobernua duen eskualdea den aldetik, Euskadik Eskualdeetako Lantaldean eta Europako beste erakundeetan aktiboki parte hartzeko eta horretaz baliatzeko duen aukera.

Euskadira egindako bisita amaitzeko, Gasteizko Santa Maria katedralera bisita gidatua egin zuen, eta horrek hiriaren historia antzinako jatorrietatik ezagutzeko aukera eman zion.

## OSOKO BILKURAK

### 83. Osoko Bilkuraren laburpena (2010eko otsailaren 9-10)

83. Bilkura, 2010-2015 agintaldirako Eskualdeetako Lantaldeko Osoko Bilkura Eratzailea ere deritzona, Bruselan bildu zen agintari berriak aukeratzeko eta EBko eskualdeetako eta tokiko erakundeen hurrengo bost urteetarako lehentasun politikoei buruz eztabaidatzeko. Aldi berean, biltzarrak gaurkotasuneko hainbat gai eztabaidatu zituen Erkidegoko legegintza-prozesuaren barruan, eta zenbait txosten nagusi egin zituen.

Hauteskundeetan, Eskualdeetako Lantaldeko presidente gisa Mercedes BRESSO andrea (IT/PSE) hautatu zuten. Bestalde, Murtziako Autonomia Erkidegoko presidentea den Ramón Luís VALCARCEL SISO (ES/PPE) Eskualdeetako Lantaldeko presidenteorde izendatu zuten. Legegintzaldiaren bi urte eta erdi igaro ondoren, presidenteak eta presidenteordeak trukatu egingo dituzte karguak.

Presidente gisa egindako diskurtsoan, agintaldian zehar landuko dituen gaiak aurkeztu zituen Mercedes BRESSOk: klima-aldaketaren aurkako borroka, sakonki berrikusitako Lisboako Estrategiaren ezarpena, Europako kohesio-politikaren hobekuntza (inolaz ere berriro nazionalizatzea), EBko finantzen etorkizunari buruzko eztabaidan eskualdeetako eta tokiko interesen txertaketa, tresna juridiko berriaren ezarpena (Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea, LLET) eta tokiko eta interes orokorreko zerbitzuen inguruko Europako strategiaren garapena, eskualdeetako eskumenak errespetatuko dituen.

Komiteko kargu politikoak hautatzeaz gain, agintaldi berrirako batzorde sektorialak banatu ziren. Batzorde sektorialetan herritartasun bakoitzeko gehieneko kideen kopurua errespetatzeko Espainiako eskualdeekin egindako negoziazioen ostean, hurrengo bost urteetan ENVE (Ingurumena, Klima Aldaketa eta Energia Batzordea) eta ECOS (Politika Ekonomikoaren eta Sozialaren Batzordea) batzordeetan parte hartuko du Euskadik.

Presidentetzan Espainia zegoenez gero, Manuel Chaves ere bertaratu zen Osoko Bilkurara; hots, Espainiako Gobernuko hirugarren presidenteordea eta Lurralde Politikako ministroa. EBren Espainiako Presidentetzak 2010eko lehenengo sei hilabeteetarako dituen lehentasunak azaldu zituen ministroak, eta kohesio-politika, Lisboako Tratatu eta EB2020 Estrategia azpimarratu zituen. Halaber, adierazi zuen Espainiako Presidentetzak aurrera eramango duela erabakiak hartzerakoan maila anitzeko agintaritzari eta erakundeen arteko lankidetzaren eta partaidetzaren mekanismoak buruzko gogoeta.

Eusko Jaurlaritzak bost zuzenketa aurkeztu zituen: Horietako lau, *Kohesio ekonomikoa eta sozialari* buruzko seigarren txostenaren ingurukoak ziren, eta bat eremu naturaletan zailtasunak dituzten nekazariei laguntza ematearen ingurukoak. Kohesio ekonomikoari buruzko zuzenketa guztiak Osoko Bilkuran onartu ziren.

Eusko Jaurlaritzaren zuzenketetan aldarrikatutako ideia nagusiak hauek izan ziren:

- Finantzak kudeatzeko, kontrolatzeko eta sinplifikatzeko berariazko atala sortzea, funtsen kudeaketan hobetu beharreko alderdi nagusienetako bat baita.
- Erkidegoaren diru-laguntza jasotzen duten proiektuen kontrol-sistemetan proportzionaltasuna mantentzeak duen garrantziaren alde egitea.
- Europar Batasunak emandako laguntzak kudeatzeko eta kontrolatzeko prozesuak sinplifikatzeko ideiak ematea, horien konplexutasunaren ondorioz.
- Funtsen araudiak denbora-tarte guztietan izendapen komuna izatea proposatzea (izendapenak eta edukiak berak izatea), emandako funtsen kudeaketa eta kontrola errazteko.
- Defendatzea «lurraldearekin duten lotura dela eta, balio naturalen babesean inplikazio-maila altua duten nekazariak» izan behar direla ingurumen-helburuak lortzerakoan, eremu pobreentzako diru-laguntzak jasoko dituztenak.

Eusko Jaurlaritzak, gainera, 60 zuzenketa jaso zituen beste eskualde batzuetatik, Euskadiko ordezkariaren bitartez babesa lortzeko eta elkarrekin aurkezteko. Horietako 40 baino ez zituen babestu, ordea, gobernu-sailek emandako argibideen arabera.

El Secretario General de Acción Exterior, Guillermo Echenique, participó además en las reuniones previas a la actividad del pleno del Grupo Socialista Europeo y de la Delegación española del Comité de las Regiones. Era berean, «Autogintzaren krisia» taldeartean bileran parte hartu zuen, non Osoko Bilkura horretan aurkeztu beharreko irizpena landu baitzen. Eskualdeetako Lantaldearekin elkarlanean egindako irizpena da eta Europako automobilgintza sektorearen erronkei aurre egiteko neurriak jorratzen ditu.

## **84. Osoko Bilkuraren laburpena (2010eko apirilaren 13-14)**

Osoko Bilkura horretan komisario ugarik parte hartu zuten, EBko eskualdeentzat eta udalerrientzat oso garrantzitsuak diren sailak kudeatzen dituztenak: eskualdeetako politika, nekazaritza eta landa-eremuaren garapena, baita auzotasun-politika hedatzeko erronka ere. Horrekin bat etorritz, askotariko gai garrantzitsuak eztabaidatu ziren, hala nola kohesio-politikaren etorkizuna, biztanleriaren zahartzea, osasun desberdintasunak EBn, dibidendu digitalaren eraldaketa gizarte-onuretan eta hazkunde ekonomikoan eta hedapen-estrategia.

Horren harira, tefan FÜLE Hedapenerako eta Europako Auzotasun Politikarako komisarioa izan zen Osoko Bilkuran. Kroazia, Mazedonia eta Turkiaren egoerak azaldu

zituen, kide izateko negoziazioak motel baitoaz. Komisarioak nabarmendu zuen gobernu-maila guztietan subsidiarotasuna aplikatzea eta kalitatezko administrazio publikoa izatea direla EBn sartzeko oinarrizko elementuak. Gainera, komiteko kideei adierazi egin zien sartu ahal izateko, eskualdeetako eta tokiko erakundeak prest egon behar direla EBtik eratorritako betebeharrak beren gain hartzeko.

Johannes HAHN Eskualdeetako Politikako komisarioa ere Osoko Bilkuran egon zen. Haren aurrean, Lantaldeko kideek 2013tik aurrera kohesio-politika berritzeko zirriborroa aurkeztu zuten. Komisarioak hauxe nabarmendu zuen: «Interes bat bera daukagu: eskualde- eta toki-eremuak indartzea. Europa nabarmentzea nahi badugu, eskualdeetako politika indartsua izatea da modurik onena. Oreka bilatu behar dugu: oinarrizko lehentasunak aukeratu behar ditugu, eta lehentasun horiek eskualdeetan berriaz aplikatzeko malgutasun handiena behar dugu». Eskualdeetako Lantaldea izan zen gai horrekiko jarrera ezagutarazten lehena. EBko eskualdeetako politika berritzeko 50.000 milioi euro daude jokoan. Eskualdeetako Lantaldeak, bestalde, komisarioari eskatu zion EBko beste politiken lurralde-eraginen inguruko kontzientzia areagotzeko eta ez itxoiteko kohesio-politikek horien eraginak konpondu arte.

Nekazaritzako eta Landa Garapeneko komisarioa den Dacian CIOLOS jaunak ere Osoko Bilkuran parte hartu zuen, NPBren erreformaren inguruko haren planteamendua azaltzeko eta EBko eskualdeetako eta tokiko ordezkarien iritzia entzuteko asmoz. Komisarioak azaldu zuen erreforma horren bidez nekazaritza merkatua hobeto kudeatzeko mekanismoak sortu nahi direla, eskualdeei nekazaritza-politika optimizatzeko aukera emanez. Nekazaritzaren lehiakortasuna indartzeko kudeaketa-sistema ezartzeko nahia nabarmendu zuen, mundu mailan lehiatzea ahalbidetuko duena. Amaitzeko, erreformaren inguruko lehenengo ondorioak ekainean argitaratuko direla adierazi zuen.

2010eko leloa «Borroka zaitez pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka» dela-eta, UEFAko presidente Michel PLATINI bertaratu zen. Osoko Bilkuran kirola eta bereziki futbola sustatzeko beharra azaldu zuen, gizarteratzeko motorra den aldetik.

Eusko Jaurlaritzak hiru zuzenketa egin zizkion etorkizuneko kohesio-politikari, eta horietako bi Osoko Bilkuran onartu ziren. Eusko Jaurlaritzak aldarrikatutako ideia nagusiak hauek izan ziren:

- Kohesio-politika epe luzerako politika izan behar da, alde batera utzita egoera ekonomikoa okertzeak epe motzera eragingo lituzkeen aldaketak.
- Funtsei dagokienez, Europa mailako asoziazionismoa egituratzeko xedapen juridiko berriak sortzeko egokitasuna, kontseiluak eta parlamentuak egitura-

funtsen araudi orokorretan ezarritako autoritateekin harremanetan dauden kideak «hizketakide nagusi» gisa hartzea ahalbidetuko duten estaldura juridikoa eta bermeak emateko.

- Landa eta hiriko guneen arteko lotura estutzeak kohesio-politikarentzat duen garrantzia. Politika horrek konponbide integratuak planteatu behar ditu landa zein hiriko guneeetan sortutako arazoei aurre egiteko. Aldi berean, egitura-funtsen eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsen (LGENF) helburuen eta tresnen arteko koordinazioa areagotu nahi da.

Eusko Jaurlaritzak, gainera, 37 zuzenketa jaso zituen beste eskualde batzuetatik, Euskadiko ordezkariaren babesa lortzeko eta elkarrekin aurkezteko. Horietako 29 baino ez ziren onartu, Gobernuko sailek emandako argibideen arabera.

Kanpo Harremanetarako Idazkari nagusiak, Guillermo Echeniquek, Europako Alderdi Sozialistaren eta Eskualdeetako Lantaldeko Espainiako delegazioaren Osoko Bilkuraren aurreko bileretan ere parte hartu zuen.

Aldi berean, Europako Eskualdeen Sarearen (REGLEG) bileran parte hartu zuen, non 2020 Estrategian eta Subsidiaritasun Printzipioan eskualdeen zeregina kontuan hartzeak duen garrantzia azpimarratu baitzuen.

## **85. Osoko Bilkuraren laburpena (2010eko ekainaren 9-10)**

85. Osoko Bilkura Mercedes BRESSO Eskualdeetako Lantaldeko presidentearen (IT/PSE) berrautaketarekin hasi zen, Italian egindako eskualdeetako hauteskundeen ondorioz, izendatu zuten kargutik bota egin baitzuten.

Landutako gai garrantzitsuenak hauek izan ziren: NPBren etorkizuna, udaberriko paketea, Europako herritarren ekimen-eskubidea, hirien birsortzea eta nazioarteko biodibertsitate-politika 2010etik aurrera.

Dacian CIOLOS Nekazaritzarako komisarioa Eskualdeetako Lantaldearen Osoko Bilkurara bertaratu zen hurrenez hurreneko bigarren aldiz eta Nekazaritza Politika Bateratuak 2013tik aurrera izango duen etorkizunaren inguruan komiteak duen jarrera entzun zuen. EBko politiken artean, NPBa da politika eztabaidatu eta garestienetako bat.

Komitearen jarrera zorrotza izan zen: «NPBk Europako politika izaten jarraitu behar du: komiteak ez du onartuko estatu kide batzuk nekazaritza gastua berriro nazionalizatzeko saiakerarik. Gainera, aurrekontua zehaztu aurretik NPBren helburuak definitu behar dira, erabil dezakegun diru-kopuruarekin erdietsi ditzakegun lorpenetara mugatu orde. Aldi berean, etorkizuneko NPBk nekazaritza modernoaren beharrak

hobeto asetu behar ditu: ingurumenarekin modu arduratsuan jokatzeko duten edo ekoizpen organikoan inbertitzen duten nekazariak saritzea, eta eskualde bakoitzaren beharrei egokitzea EB osoan ikuspegi uniformeak aplikatu ordez».

Komisarioak Eskualdeetako Lantaldeari bigarren irizpen bat eskatzeko erabili zuen bisita. Oraingo honetan, tokiko nekazaritza-produktuak merkaturatzen nola laguntzea eta kalitate handiko nekazaritza-ekoizpena eskala handian nola sustatzea izan ziren galderak.

Bestalde, Osoko Bilkuran Michel BARNIER Barne Merkatuko eta Zerbitzuetako Komisarioa aurkeztu zen. Barne-merkatuaren hobekuntzan eta Europako eraikuntzan itxaropenik ez duten hiritarren kontzientziazioan eskualdeetako eta tokiko agintariek duten eginkizuna azpimarratu zuen. Barne-merkatua indartzea ezinbestekoa dela adierazi zuen. Horrez gain, hurrengo bost urteetarako lan-programa azaldu zuen, eta banku-transakzioen gaineko tasa ezartzeko garrantzia azpimarratu zuen, saihesteko, besteak beste, zerga-ordaintzaileak izatea bankuak salbatzen dituztenak.

Azpimarratzekoa da herri-ekimenerako eskubidearen inguruko irizpena, Europar Batasuneko politiken eraketan parte hartzeko modu berri bat osatzen duena. Horri esker, gutxienez Batasuneko milioi bat herritarrek, hainbat Estatu kidekoak, Europako Batzordeari legegintza-proposamen bat aurkezteko eska diezaioke. Eskualdeetako Lantaldeak eskatu du herri-ekimen bat aurkezteko Europako herritarrek bete behar dituzten baldintzak murriztea, Europako Batzordeko interesen guztiz aurkakoa den proposamena.

Osoko Bilkuran eztabaidatutako irizpideei 27 zuzenketa egin zizkien Eusko Jaurlaritzak<sup>4</sup> eta horietako 21 onartu egin ziren. Ideia nagusiak hauek izan ziren:

#### Nekazaritzako Politika Bateratua

- Europako nekazaritzak, herritarrei elikagaiak emateaz gain, merkatuak saritzen ez dituen ondasun publikoak ematen dizkio Europako gizarteari – lurraldearen kudeaketa, paisaiaren kudeaketa, ingurumenaren eta baliabide naturalen babestea- Europar Batasunarentzat berez balio erantsia dutenak.
- Europarentzat, nekazaritzako elikagaien industria sektore estrategikoa dela azpimarratu zen, EB2020 Estrategiaren erronkei eta lehentasunei erantzuten baitie.
- Laguntza emateko lehenengo mailan diruz laguntzeko neurria hektareako ordainketa bakar aldarrikatu zen.
- Ordainketa hori nekazaritza-jarduera emankorraren mende egongo da.

<sup>4</sup> Nekazaritza Politika Bateratua (10), eremu naturalen biodibertsitatea eta kontserbazioa (14), Europako hiri-birsortzea eta garapena (5), Europako Herri Ekimena (1).

- Laguntza jasotzeko lehenengo mailako gutxieneko eskakizunez harago, ingurumenaren aldeko jardunbide egokiak eta ekoizpen-sistemak balioestea eta sustatzea proposatu zen, paisaiaren babesa eta lurraldea ustiatzeko kontratuak, esaterako.
- Nekazaritza Politika Bateratuaren euskarri nagusi gisa elikadura eta nekazaritza hartu ziren.
- Nekazaritzarekin lotutako elikagaien industria indartzea proposatu zen, merkatu-orientazioa eta lehiakortasuna areagotuz.
- Hori egiteko dagoeneko ezarritako neurriak indartuko dira eta lehiakortasunera zuzendutako neurri berriak diseinatuko dira (nekazaritzako elikagaien katearen funtzionamendua hobetzea, kanpoko finantzaketa osagarria, ekoizpen arloko negoziazio-ahalmena sustatzea, merkataritza-zirkuitu txikiak laguntzea).
- Nekazaritzako elikagaien industriara bideratutako neurriei lehiakortasuna sustatzeko helburuarekin bat datorren finantzazioa ematea eskatu zen, NPBren egungo sustapen-eskeman finantza-garrantzi handiagoa izango duena eta lehenengo euskarriaren finantza-paketearekin loturarik izango ez duena (modulazioak).
- Europako nekazaritza elikagaien sektoreko zeregin estrategikoa azpimarratzea eskatu zen, Europa 2020 Estrategiako lehentasunak betetzen laguntzeko.

#### Biodibertsitatea eta eremu naturalen kontserbazioa

- Pertsona orok ingurune osasungarria eta iraunkorra izateko eta horretaz gozatzeko eskubidea duela adierazi zen. Horretarako biodibertsitatea kontserbatu eta era iraunkorrean erabili behar da, eta horrek zeregin nagusia du munduko gosearen aurkako borrokan eta elikagaien segurtasunaren sustapenean.
- Biodibertsitatea kontserbatzeko proiektuen sustatzaile gisa Eskualdeetako Lantaldeak duen zeregina indartzea, horietatik biodibertsitatearen susperraldiaren emaitza nabariak lortzeko.
- Biodibertsitatearen aldeko eskualdeetako proiektuak zehaztea, adibidez, hezeguneak zaharberritzea eta ingurabide berdeak edo biodibertsitatea kontserbatzeko irizpideak dituen hiri-plangintza ezartzea.
- Eskualdeetako erakundeen ahaleginak eta jarduerak nabarmentzea eskatu zen, biodibertsitatearen kontserbazioaren aldekoak eta biodibertsitatearen inguruan EBak 2020rako dituen helburuak lortzeko garrantzitsuak direnak.
- Biodibertsitatea babesteko ardatza eremu babestuek eta sare ekologikoek osatzen dutela berretsi egin zen.



- Behin eta berriz aipatu ziren tokiko eta eskualdeetako hegaztien eta habitaten inguruko zuzentarauak aplikatzeko, Natura 2000 Sarearen ezarpena eta garapena azeleratzeko eta finantzaketa egokia ezartzeko beharrak.
- Babestutako eremuez harago, biodibertsitatea kontserbatzeko beharra azpimarratu zen.
- Biodibertsitatea garapenean txertatu eta beste politiketan aplikatzeko ahaleginak indartu behar direla azpimarratu zen. Horretarako, «azpiegitura berdeak» sortzea gomendatu da, eta Europako Batzordeari kontzeptu horren garapena sustatzeko eskatu zen.
- Klima-aldaketara egokitzeko beharrean biodibertsitateak duen zeregina nabarmendu zen.
- Klima-aldaketa moteltzeko eskualdeetako proiektuak azpimarratu ziren: ibaien ibilibidea berriro naturalizatzea, eremuen arteko loturak hobetzeko guneak sortzea.
- Europa 2020 Estrategiaren oinarritzko helburuak lortzeko, bigarren mailako helburuak sustatu beharra aipatu zen.

#### Europako hirien birsortzea eta garapena

- Europak proposatutako hiri-garapenerako eredua sortzeko lurralde plangintzaren eginkizuna sustatu zen.
- Hirien birsortze-lan honetan eskualdeek duten zeregina azpimarratu zuen, lurralde-plangintzatik hirien plangintza egin eta horiek eraikitzen arte.
- Hirietan oinezkoen eta bizikleta bidezko mugikortasuna lehenesteko beharra sustatu zuen, motorrik gabeko garraiobideetan mugitzea sustatuz eta errepideek eten dituzten oinezkoen bideen arteko loturak berriro ezarriz.
- Hirien biztanleria-dentsitatearen ordez, eraikitako lurraldearen hedapenaren inguruko kezka adierazi zuen.
- Lurralde- eta hiri-plangintza azpimarratu zituen hitzartze administratiboa eta, azken batean, eskualdeetako gobernuia sustatzeko.

#### Europako herri-ekimena

- Partaidetzako demokraziak Batasunaren bizitza demokratikoan parte hartzeko herritar orok duen eskubidea aitortu zen. Eskualdeetan eta toki-

eremuetan herritarrei bizitza publikoa gerturatzeko egiten diren jardueren sustatzailea Eskualdeetako Lantaldea izatea proposatu zen.

Eusko Jaurlaritzak, gainera, 59 zuzenketa jaso zituen beste eskualde batzuetatik, Euskadiko ordezkariaren babesa lortzeko eta elkarrekin aurkezteko. Horietako 42 baino ez ziren onartu, Gobernuako sailek emandako argibideen arabera.

Kanpo Harremanetarako Idazkari nagusiak, Guillermo Echeniquek, Europako Alderdi Sozialistaren eta Eskualdeetako Lantaldeko Espainiako delegazioaren Osoko Bilkuraren aurreko bileretan ere parte hartu zuen.

Halaber, «Autogintzaren krisia» taldeartean bileran parte hartu zuen. Oraingo honetan, sektorearen inguruko jarrera komun bat hartzeko egin zen, automobilgintzaren eskumendekoen eragileen eta berregituraketen ondorioak jasan dituzten lurraldeen arteko europar solasaldia sustatuz. Euskadik jardunbide berritzaileen adibide praktiko bat aurkeztu zuen.

## **86. Osoko Bilkuraren laburpena (2010eko urriak 4-6)**

Oraingoan, Eskualdeetako Lantaldeko 86. Osoko Bilkura egin zen garaian Europako Parlamentuko Osoko Bilkura (urriak 6-7) eta Open Days jardunaldiak edo Europako Eskualdeen eta Hirien Astearen VIII. Edizioa (urriak 4-7) ere egin ziren.

Saioari hasiera emateko, Europako Parlamentuan Open Days jardunaldiak inauguratu egin ziren eta lehen mailako erakundeak bertaratu ziren. Ongietorri mintzaldiak hurrengoek egin zituzten:

- Danuta HUBNER, Europako Parlamentuko Eskualde Garapenerako Batzordeko presidentea.
- Johannes HAHN, Eskualde Politikako komisarioa.
- Mercedes BRESSO, Eskualdeetako Lantaldeko presidentea.

Ondoren, lau mintzaldi egon ziren, hurrengoek egin zituztenak:

- Rodi KRATSA-TSAGAROPOULOU, Europako Parlamentuko presidenteordea.
- Rudy DEMOTTE, Valoniako Eskualdeko ministro presidentea (Belgikako presidentzia).
- José Manuel BARROSO, Europako Batzordeko presidentea.
- Philippe MAYSTADT, Europako Inbertsio Bankuko presidentea.

Horiek guztiek gai hauei buruz eztabaidatu zuten: suspertze ekonomikoa eta EB2020 Estrategia, Europako kohesio-politika, eskualdeen eta udalerrien eginkizuna Batasuneko kide aktibo gisa eta maila anitzeko gobernantzaren garrantzia.

laz, egun berdinetan, Lehendakariak lau mintzaldi nagusietako bat egin zuen Europako eskualdeen ordezkari gisa.

Open Days jardunaldiak inauguratu ondoren, komiteak EBko kontsulta-organo moduan egin beharreko legegintza-jarduerarik jarraitu zuen, non Euskadirentzako interes-gai hauek eztabaidatu baitziren: etorkizuneko ingurumen-politika, kohesio-politika, aurrerapena BPGaz harago, lankidetzaren publiko-pribatuaren garapena, Europarentzako agenda digitala, etxerik gabekoen auzia eta Europako Auzotasun Politika, besteak beste.

Komitean Klimaren Aldeko Ekintzarako komisarioa den Connie HEDEGAARD izan zen ere. Osoko Bilkuraren aurrean aurkeztu egin zen klima-aldaketaren inguruko Nazio Batuen Konferentziarako EBak dituen planak eta konpromisoak azaltzeko, Osoko Bilkura hau egin eta hilabete eta erdi aurrerago Cancúnen egingo zena, baita klima-aldaketaren aurkako borrokan udalerriek eta eskualdeek duten eginkizuna nabarmentzeko ere.

Gai honen inguruan Elisabeth KAUTZ Burnsvilleko alkatea (Minnesota) mintzatu zen ere. AEBko Alkateen Konferentziaren izenean, Eskualdeetako Lantaldearekin klima-aldaketa moteltzeko eta horretara egokitzeko lankidetzari buruzko asmoen akordioa sinatu zuen eta ozeanoaren bi aldeetan hitzarmen horrek ekar ditzakeen onura garrantzitsuak azpimarratu zituen.

AEBko Alkateen Konferentzia 1932. urtean sortu zen, depresio handia gertatu bitartean, lehentasunezko hainbat esparrutan udalerriek parte hartu ahal izateko. Horren froga Klima Babesteko Hitzarmena da, 141 amerikar alkatek sinatu zutena AEBk oraindik sinatu ez zutenean. Egun 1044 alkatek osatzen dute, 84 milioi pertsona ordezkatzeko dituztenak.

Bestalde, Neelie KROES Batzordeko Presidenteordea eta Agenda Digitalerako Komisarioa Osoko Bilkurara bertaratu zen «Europarentzako Agenda Digitala» ekimen berriaren helburuak eta lehentasunak azaltzeko. Komisariak tokiko eta eskualdeetako Europako erakundeekin beharrezko partaidetza aldarrikatu zuen, bai Agenda Digitalaren edukiak herritarrei jakinarazteko, bai Informazioaren Teknologiek hainbat esparrutan duten onura sozial eta ekonomikoak maximizatzeke.

EBko Batzordeko Belgikako presidentetzaren izenean Laurette ONKELINX aurkeztu zen, Belgikako Lehen Ministro-ordea eta Osasun eta Gizarte Gaietarako ministra. Europako pobrezia aurka borrokatzeko beharraz eta alor horretarako EB2020 Estrategiak ezarri dituen helburuez mintzatu zen. Halaber, ekonomiak eta gizarte lantaldeak gai horretan duten eginkizuna indartzea gobernuaren lehentasuna dela azpimarratu zuen. Ministroak adierazi zuen estatu kideen betebeharra herritar guztiei interes orokorreko gizarte-zerbitzuak ziurtatzea dela, gizarte-kohesioa bermatu ahal izateko.

Osoko Bilkura horretan, Eusko Jaurlaritzak 10 zuzenketa aurkeztu zituen <sup>5</sup> (guztiak Osoko Bilkuran onartu egin ziren) hiru irizpenen artean banatuta eta hurrengo proposamenen ingurukoak:

Kohesio-politika Europa 2020 Estrategian:

- Politiken ikuspegi deszentralizatuaren alde egin zen, egitura-funtsen esku-hartze handiagoarekin eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko kohesio-politika sortzeko.
- Industria-garapen handiagoa duten eskualdeak elementu nagusi gisa hartu ziren globalizazioaren aro honetan Europako industriaren lehiakortasuna sendotzeko.

Etorkizuneko ingurumen-politika:

- Erakundeen eta sektoreen arteko koordinazioa eta lankidetzak defendatu zen, maila anitzeko benetako agintaritzak lortzeko eta etorkizuneko ingurumen-politikan eskualdeek konpromiso proaktiboa hartzeko. Tokiko Agenda 21 ekimena horren adibide ona da (2 zuzenketa).
- Ekoizpen-eredu iraunkorra sustatzea proposatu zen herritarren ingurumenean eta osasunean duen eragina murrizteko, helburu hori lortzera bideratutako jarduerak ekonomiko berriak sortuz.
- Tokiko eta eskualdeetako erakundeei ingurumena kontrolatzeko mekanismo simple eta koordinatuak erabiltzeko eskatu zitzaizkien, araudiak xedatutako betebeharrak betetzen lagunduko dietenak eta administrazio publikoen eta herritarren arteko harremana sustatuko dutenak, eraginkortasunaren, gardentasunaren eta erantzukizun partekatuaren printzipioetan oinarrituta.
- Europako Batzordeari ezarritako helburuak lortzeko eskualdeei eta udalerriei behar adina baliabide ematea eskatu zitzaion.

<sup>5</sup> Europa 2020 Estrategia, bi zuzenketa; etorkizuneko ingurumen-politika, 6 zuzenketa; BPGaz harago, 2 zuzenketa.

- Lurralde-antolamendua eta hiri-plangintza lehentasunezko alor gisa hartu ziren, sektoreen eta erakundeen artean ingurumen-helburuak eta eskakizunak txertatzeko.

#### Aurrerapena BPGaz harago:

- Europako Batzordeak egindako *Eskualdeak 2020* txostena kontuan hartzea proposatu zen, aurre egin beharreko erronken aurrean eskualde bakoitzaren egoera eta besteekiko duen jarrera ezagutzeko.
- Batzordeari irabazkinen desberdintasunari buruzko informazioa helaraztea eskatu zitzaion, lurraldearen diru-sarrerren maila kontuan hartu gabe.

Eusko Jaurlaritzak, gainera, 33 zuzenketa jaso zituen beste eskualde batzuetatik, Euskadiko ordezkariaren babesaren lortzeko eta elkarrekin aurkezteko. Horietako 7 baino ez ziren onartu, Gobernuak sailek emandako argibideen arabera.

Kanpo Harremanetarako Idazkari nagusiak, Guillermo Echeniquek, Europako Alderdi Sozialistaren eta Eskualdeetako Lantaldeko Espainiako delegazioaren Osoko Bilkuraren aurreko bileretan ere parte hartu zuen.

## **87. Osoko Bilkuraren laburpena (2010eko abenduak 1-2)**

Osoko Bilkurari hasiera emateko, Mercedes BRESSO andrea Eskualdeetako Lantaldeko presidentek Lisboako Tratatuaren lehen urteurrena gogoratu zuen eta denbora-tarte horretan Eskualdeetako Lantaldearen trantsizio-prozesuaren alde onak eta txarrak aztertu zituen. Ondoren, gaurkotasuneko gai nagusiak aurkeztu zituen. Horien artean hauek nabarmendu zituen: 2020 Europa Estrategia, garapen iraunkorraren aldeko alkateen ituna, energia eta klima-aldaketaren aurkako borroka eta eskualdeen agintaritzak ekonomikoa eta euroaren babesle gisa eta egonkortasun-egiuneetan eskualdeek duten eginkizuna.

Europa 2020 Estrategiaren esparruan hainbat irizpen landu ziren, hala nola Europaren lankidetzak hezkuntzan eta lanbide-heziketan eta Energiari buruzko EBren 2011-2020 Ekintza Plana.

Beste gaien inguruan, finantza-krisia edo 2007-2013 urteetarako kohesio-politika, esaterako, Osoko Bilkura honetan gonbidatu berezia izan zen José Manuel BARROSO jauna mintzatu zen.

Europako Batzordeko presidentek Eskualdeetako Lantaldearen eta Batzordearen arteko lankidetzak sendotzeko nahia adierazi zuen eta Europar Batasunaren

hazkundean eta elkartasunaren sendotzean kohesio-politikak duen pisua onartu zuen. Era berean, Europako Batzordeak 2011rako duen lan-programaz mintzatu zen, Europako funtsak kohesio-politikan modu arduratsuan erabiltzeak duen garrantzia azpimarratuz.

Amaitzeko, osasun publikoaren gaia nabarmendu behar da. John DALLI Osasunerako eta Kontsumitzaile Politikarako komisarioa mintzatu zen horren inguruan, 2008-2013 osasun estrategiaren aplikazioan lurralde-erakundeek duten eginkizunari buruz Osoko Bilkura honetan aurkeztutako irizpenaren harira. Komisarioak bere mintzaldi berezia baliatu zuen osasun publikoaren inguruan eskualdeek duten garrantzia eta alor horretako eskualdeen arteko lankidetzaren beharra nabarmentzeko. Osasun alorrean berrikuntzak duen garrantzia nabarmendu zuen, herritar guztiak zaintzeko tresna baita, eta gaixotasuna tratatzetik hura prebenitzera pasa behar dela aipatu zuen.

87. Osoko Bilkura horretan, Eusko Jaurlaritzak 13 zuzenketa aurkeztu zituen<sup>6</sup>, eta horietako 12 onartu egin ziren. Ideia nagusi hauek aldarrikatu ziren:

1.- Europako lankidetzaren hezkuntza eta lanbide-heziketan, Europa 2020 Estrategia sustatzeko:

- Ikastetxeen, gobernu maila ezberdinen eta enpresen arteko lankidetzaren sustatzea, ahaleginen bikoitzak saihesteko eta zerbitzuaren kalitatea, baliabideen optimizazioa eta finantza publikoak bermatzeko.
- Estatistika eta datu eguneratuak, zorrotzak eta fidagarriak izatea, aurrez aipatutako lankidetzaren esparruan egindako ikerketa-planak eraginkorrak izateko.
- Lanbide-heziketa sustatzea, goi-mailako ikasketarik ez duten pertsonak ere lan-merkatara sar daitezkeen.
- Unibertsitateko ikasketak aukeratzeko garaian ikasleentzako orientabide eta laguntza zerbitzuak indartzea, lan-merkatuari eta epe motzeko haren beharrei buruzko informazio fidagarria emanez.
- Europako hezkuntza-sistemak malgutzea, eta herritarrei Batasuneko sistema guztietan egoteko aukera ematea, prestakuntza-maila handituko duena.
- «Lan duina» aldarrikatzea lan ibilbidean zehar pertsona guztiek lor dezaketen helburu gisa, pobrezia murrizteko moduetako bat eta garapen inklusiboa eta iraunkorra lortzeko bideetako bat baita.
- Hezkuntza-kalitatearen hobekuntza etorkizuneko zein orainaldiko erronkak gainditzeko bide bat bezala hartzea.

<sup>6</sup> Europako lankidetzaren hezkuntza eta lanbide-heziketan, 8 zuzenketa; lurralde-erakundearen eginkizuna osasun alorreko estrategiaren aplikazioan, 5 zuzenketa.

## 2.- Lurralde-erakundeen eginkizuna osasun alorreko 2008-2013 estrategiaren aplikazioan

- Agerian jartzea gaixotasun kronikoaren eta biztanleriaren zahartzearen ondoriozko ahalmen urritasuna eta mendekotasuna osasun-sistemek aurre egin behar dizkieten erronka berriak direla.
- Ebidentzia zientifikoekin egiaztatzea APRA hezkuntzan helduen osasunerako gomendatuko diren neurriak.
- Europako herritarren osasun-adierazleak definitzeko eta jarraipena egiteko ezinbestekoak diren datuen bilketa sistematikoa adierazle orokorren multzoan sartzeko eskatzea, osasunarekin, gizartearekin edo biekin lotutako adierazleak izango dituztenak.
- Osasun-proiektuek tokiko eskalan eta inbertsioaren etekinean duten inpaktua *a priori* edo *a posteriori* ebaluatzeko aukera ematen duten tresnak sortzea.

Eusko Jaurlaritzak, gainera, 48 zuzenketa jaso zituen beste eskualde batzuetatik, Euskadiko ordezkariaren babesa lortzeko eta elkarrekin aurkezteko. Horietako 32 baino ez ziren onartu, Gobernuako sailek emandako argibideen arabera.

Kanpo Harremanetarako Idazkari nagusiak, Guillermo Echeniquek, Europako Alderdi Sozialistaren eta Eskualdeetako Lantaldeko Espainiako delegazioaren Osoko Bilkuraren aurreko bileretan ere parte hartu zuen.



Eskualdeetako Lantaldearen Osoko Bilkura.

## AHOLKULARITZA-LANA

### 1.- Iritzi-eskaerak jaso dituzten Eusko Jaurlaritzaren sailak eta haien jarrera

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak **55 aldiz** eskatu du Eusko Jaurlaritzako sailen iritzia Europako denetarikoa aztertzen duten Eskualdeetako Lantaldearen **45 irizpen-proiektutan**<sup>7</sup>.

Taula honetan ikusten da iritzi-eskaeren **banaketa, Osoko Bilkuren arabera**:

Osoko Bilkura zk.	Data		Iritzi-eskaeren kop.
83	Otsailak 10 - 11	2010	12
84	Apirilak 13 - 14	2010	14
85	Ekainak 9 - 10	2010	10
86	Urriak 5 - 6	2010	11
87	Abenduak 1 - 2	2010	8

Aurreko urteko (2009) datuekin alderatuz gero, bistakoa da sailen eskaera-kopurua handiagoa dela: 2009an 52 iritzi-eskaera egin ziren; aurten, berriz, 55.

#### Sailak eta landutako gaiak

Irizpenetan askotariko gaiak biltzen direnez, zehatz-mehatz adierazi behar da zer saili dagokion gai bakoitza. Taula honetan, sailak eta 2009an zehar landutako gaiak lotu dira.

<sup>7</sup> Atxikita, 2010. urtean aztertutako irizpen-proiektuen zerrendaren eranskina.



Sailak	Gaiak
Presidentetza	- Europako integrazioa eta erakundeak - Kanpo-harremanak – Eskualde- eta kohesio-politika – Nazioarteko lankidetzak
Ekonomia eta Ogasun Saila	- Telekomunikazioak – Eskualde- eta kohesio-politika – Finantzak - Aurrekontua
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	- Energia – Lehiakortasuna eta industria-politika – Ikerketa eta berrikuntza - Informazioaren gizartea - Telekomunikazioak
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila	- Garraioak
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	- Gizarte-ongizatea – Garapenerako lankidetzak – Gaztedia – Gutxiengoak – Eskualde- eta kohesio-politika
Osasun eta Kontsumo Saila	- Osasun publikoa
Kultura Saila	- Kultura – Hezkuntza - Gaztedia
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila	- Ingurumena - Nekazaritza - Eskualde- eta kohesio-politika - Lurralde-antolamendua
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	- Hezkuntza – Lanbide-heziketa
Justizia eta Herri Administrazio Saila	- Informazioaren gizartea
EUDEL	- Hiri-politika

### Kontsultatutako sailak eta haiek emandako erantzunak

2010ean, 55 iritzi-eskaera egin eta 52 erantzun jaso dira; hots, erantzun-maila aski ona izan da (% 95).

Eusko Jaurlaritzak Eskualdeetako Lantaldean duen partaidetza xehetasun handiagoz aztertzeko, kontsultatutako sailen eta haien erantzunen zerrenda aurkezten da.

<b>Sailak eta erakundeak</b>	<b>Bidalitako eskaerak</b>	<b>Jasotako erantzunak</b>
Presidentetza	14	14
Ekonomia eta Ogasun Saila	8	8
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	2	2
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	5	3
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	7	7
Justizia eta Herri Administrazio Saila	2	2
Osasun eta Kontsumo Saila	2	2
Kultura Saila	2	2
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila	10	10
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila	1	1
EUDEL	2	1
<b>Guztira</b>	<b>55</b>	<b>52</b>

## Sailek emandako erantzun-motak

Iritzi-eskaerari erantzuteko orduan, sailek bi erantzun-mota eman ditzakete: irizpenarekiko adostasuna, edo irizpenari zuzenketak aurkeztea. Jasotako 52 erantzunak honelakoak izan dira:


- **Adostasunezko 37** erantzun, hau da, jasotako erantzun guztien % **71**.
- **15** erantzun **zuzenketekin**; hau da, sailek bidalitako erantzun guztien %**29**.

Aurreko urteotako joera aurtengo emaitzekin egiaztatu da. Adostasunezko erantzunek % 9 gora egin dute eta zuzenketak dituzten erantzunak proportzio beran murriztu dira.

Hori gertatu da aurten EBko kanpo-harremanekin lotutako araudi ugari landu direlako, gure autonomia erkidegoaren interesei zuzenean eragiten ez dietenak.

Xehetasun gehiago eskuratzeko, hurrengo grafikoan adierazi dira lortutako emaitzak:

**Grafikoa: sailek emandako erantzun-motaren bilakaera 2009 eta 2010 artean**




## 2.- Jarreraren defentsa: Eusko Jaurlaritzaren zuzenketak

### Idatzitako, aurkeztutako eta onartutako zuzenketak

2010ean, Eusko Jaurlaritzako sailek **77 zuzenketa egin dizkiete guztira** Eskualdeetako Lantaldearen irizpen-proiektuei. 77 zuzenketa horietarik, **58k** aurkezteko behar adina babes lortu zituzten eta **49 onartu** egin ziren. Taula honetan datoz zuzenketak proposatu dituzten sailak, eta haien emaitza:

Saila/ Kontsultatutako erakundea	Egindako zuzenketak	Aurkeztutak o zuzenketak	Onartutako zuzenketak
Presidentetza	2	1	1
Justizia eta Herri Administrazio Saila	1	0	0
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	2	0	0
Osasun eta Kontsumo Saila	6	5	4
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila	37	33	26
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	11	8	8
Ekonomia eta Ogasun Saila	18	11	10
<b>Guztira</b>	<b>77</b>	<b>58</b>	<b>49</b>


**Grafikoa:** 2009 eta 2010 artean idatzi, aurkeztu eta onartutako zuzenketen bilakaera



**Onartutako zuzenketen ehunekoa**

Ikus daitekeenez, onartutako zuzenketen ehunekoa aurreko denbora-tartearena baino txikiagoa da (% 84 izan da; 2009an, berriz, % 89 izan zen).

**Grafikoa:** 2009 eta 2010ean onartutako zuzenketen ehunekoa



### 3.- Beste eskualde batzuek egindako zuzenketen aurkezpen bateratua

Eusko Jaurlaritzak bere zuzenketak beste eskualde batzuei helarazi dizkien moduan babesa eskuratzeko, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak aurkezteko babes bila dabiltzan beste eskualde batzuen zuzenketak jasotzen ditu, jarraian datorren taulak islatzen duen bezala.


2010. urtean, Espainiako 13 eskualdek eta Europako batek, Rhöne Alpeak, **238 zuzenketa** bidali zizkiguten, gure babesa lortzeko eta elkarrekin aurkezteko helburuarekin. Horietako **150 babestu zituen Eusko Jaurlaritzak**. Horrek esan nahi du jasotako zuzenketen % **63 inguru babestu dituela Eusko Jaurlaritzak**.

Zuzenketen bidaltzaileak	Jasotako zuzenketen kop.	Euskadik babestutako zuzenketen kop.
<p><b>Andaluzia</b></p> <p>nekazaritza produktuen kalitatea, 6; naturarekin arazoak dituzten nekazariak, 4; osasuna, 3; ingurumeneko eraginaren ebaluazioaren eta ingurumenaren ebaluazio estrategikoaren zuzentarauak, 5; kohesio-politika, 3; PNBren etorkizuna, 6; agenda digitala, 1; etxerik gabeko pertsonak, 2; energia, 2; askatasuna eta segurtasuna, 1; ijitoak, 2; osasuna 2008-2013, 1.</p>	35	20
<p><b>Aragoi</b></p> <p>osasuna, 1; hiri-mugikortasuna, 1; etorkizuneko ingurumen-politika, 3; energia, 1.</p>	6	2
<p><b>Asturias</b></p> <p>kohesio ekonomikoa eta soziala, 5; gazteria, 1; hiri-mugikortasuna, 4; zahartzea, 2; biodibertsitatea, 4; etorkizuneko ingurumen-politika, 5; aurrerapena BPGaz harago, 2; energia, 3; industria kulturalak eta sormenezkoak, 1.</p>	27	10
<p><b>Balearrak</b></p>	6	1

<p>koherio ekonomikoa eta soziala, 1; zailtasun naturalak dituzten nekazariak, 1; koherio-politika 2007-2013, 1; zazioarteko klima-politika, 2; aurrerapena BPGaz harago, 1.</p>		
<p><b>Kanariak</b></p> <p>gazteria, 3; zahartzea, 4; NPB 2013tik aurrera, 1; koherio-politika, 2; aurrerapena BPGaz harago, 1; klima-aldaketa, 1; nazioarteko klima-politika, 2; energia, 1; lanbide-heziketa, 1.</p>	16	10
<p><b>Katalunia</b></p> <p>Herri-ekimena, 7; udaberriko paketea, 14; aurrerapena BPGaz harago, 1; klima-aldaketa, 1.</p>	23	22
<p><b>Gaztela eta Leon</b></p> <p>Ekonomia- eta gizarte-koherioa, 1; analfabetismo funtzionala, 22; zahartzea, 3; udaberriko paketea, 4; NPBa 2013tik aurrera, 7; energia, 12.</p>	49	48
<p><b>Extremadura</b></p> <p>Koherio-politika, 3; NPBa 2013tik aurrera, 3.</p>	6	3
<p><b>Galizia</b></p> <p>Zailtasun naturalak dituzten nekazariak, 1; hiri-mugikortasuna, 3; energia, 2; osasuna, 6; klima-politika, 1; NPBa 2013tik aurrera, 2; ekonomia eta enplegua, 1.</p>	16	12
<p><b>Madril</b></p> <p>Ekonomia- eta gizarte-koherioa, 5; gazteria, 3; analfabetismo funtzionala, 5; udaberriko paketea, 2; koherio-politika, 1; osasuna 2008-2013, 1.</p>	17	6
<p><b>Murtzia</b></p> <p>NPBa 2013tik aurrera, 1; Mediterraneoko politika, 8; klima-aldaketa, 2; energia, 7; klima-politika, 2.</p>	20	10
<p><b>Nafarroa</b></p> <p>Borondatezko lana, 1; gazteria, 1.</p>	2	2
<p><b>Valentzia</b></p> <p>Ingurumen-politika, 2.</p>	2	0

<b>Rhône Alpeak (Frantzia)</b> Kohesio-politika, 8; EBn sartzeko hautagai diren herrialdeak, 5.	13	4
<b>GUZTIRA</b>	<b>238</b>	<b>150</b>

**Grafikoa:** beste eskualdeetako zuzenketei emandako babesaren bilakaera 2009 eta 2010 artean



Zuzenketa horiei babesa emateko orduan, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak sailtako teknikari espezializatuen laguntza izan du, bai eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko teknikarien laguntza ere. Horiek denek beren iritzi arrazoitua ematen dute, Eusko Jaurlaritzak gaiari buruz duen politika kontuan hartuta, eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak balioespen hori helarazten die Eskualdeetako Lantaldeko euskal ordezkariaren sinadura eskatu diguten eskualdeei.

Kontuan hartuta beste eskualdeek egindako zuzenketa kopuru handia, lan handia eskatzen dute azterketa egiteak eta hala badagokio, babesa emateak ere. Eginkizun hori ezinbestekoa da zuzenketa bateratuak aurkeztea ahalbidetzen duelako eta Euskadiren interesak European nabarmenak izatea eta aintzat hartzea sustatzen duelako.



Taulari dagokionez, beste eskualdeetatik jasotako zuzenketak ez babesteko arrazoiak azaldu nahi ditugu. Arrazoi nagusia funtsezko alderdiekin lotuta dago. Kasu askotan, babestu ez ditugun zuzenketak gobernu-sailek emandako irizpideen eta gomendioen aurkakoak ziren. Zuzenketa-mota horiek babestea inkoherentzia bat izango litzateke Eusko Jaurlaritzako politiken aplikazioari eta Euskadiko interesen defentsari dagokienez. Bigarrenez, aldaketa garrantzitsurik eragiten ez zuten hizkuntzaren ñabardurak baino ez zirelako ez zaie babesik eman zuzenketei. Termino batzuen ordeztu beste batzuk erabiltzea nahi zen eta batzuetan itzulpen-arazoekin lotuta zeuden. Amaitzeko, beste zuzenketa batzuk ez ziren babestu epe kanpo aurkeztu zirelako edo epea amaitzen zen egun berean jaso genituelako, epe barruan aztertzeko eta erantzuteko denborarik izan gabe.

#### **4.- Gai nagusien inguruko berriazko kontsultak**

2009ko apirilaren 21ean Eskualdeetako Lantaldeak onartutako Eginkizunen Adierazpenak adierazten duen bezala, komitearen eginkizuna eskualdeetako eta tokiko autoritateak Erkidegoko prozesu erabakitzailean parte hartzea da, gure herritarren partaidetza hobetuz.

Horregatik, irizpenak egiteaz gain, komiteak kontsultak antolatzen ditu, gehienetan Europako Batzordearekin elkarlanean arituz, eskualdeek eta udalderiek EBko ekimen politiko garrantzitsuenen inguruan dituzten iritzia eta EBko lurraldeetan martxan dauden neurrien garapenari buruzko informazioa biltzeko.

Galdera-sorten bidez, gainera, Europar zehar gertatzen ari diren kasu zehatzen adibideak azter daitezke, eta era horretan erabaki daiteke Erkidegoko araudi berriaren ikuspegiak nolako izan behar duen, eta nolako eragina izan dezakeen Europar Batasuneko lurraldeetan.

Hala, Eusko Jaurlaritzak Europa 2020 Estrategiaren hiru kontsultetan eta Lurralde Lankidetzako Europako Taldearen batean parte hartu du. Azkeneko honen bidez Euskadi-Akitania euroeskualdea eratuko da.

#### **Europa 2020 Estrategiari dagokionez**

##### **1.- Europa 2020aren inguruko iritzia (2010eko apirila)**

2010eko martxoan, Europako Batzordeak Lisboako Estrategiari jarraipena ematen dion proposamena aurkeztu zuen: «Europa 2020: hazkunde adimendun, iraunkor eta integratzaile baterako estrategia».

Hala ere, eskualdeetako eta tokiko erakundeen ikuspegitik, badira oraindik ebatzi gabeko galdera batzuk, eta hori dela eta, Eskualdeetako Lantaldeak kontsulta hau antolatu du, galdera hauetan argi egiteko: lurralde-mailan helburu bereziak eta BPGaz harago doazen adierazleak ezartzeko beharra, estrategia berria osatzeko eta martxan jartzeko tokiko eta eskualdeetako erakundeen benetako eginkizuna, Europa 2020 strategiaren, kohesio-politikaren eta EBren aurrekontuaren arteko loturak eta EBko herritar guztiei estrategia berria jakinarazteko beharra.

Kontsulta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin zuen. Guztira 21 estatu kideetako EBko 97 eskualdek eta tokiko erakundek hartu zuten parte kontsultan.

Eusko Jaurlaritzak esan du EB 2020 Estrategia estrategia integratua izan behar dela, garapen-dimentsio guztiak barne hartuko dituen eta helburu ekonomiko eta ingurumeneko eta gizarte-kohesioari dagozkien helburuen arteko oreka bilatuko duena. Helburu neurgarri berri baten ezarpena proposatu da, gizarte- eta lurralde-kohesioen desberdintasun-mailak neurtuko dituen. Horretarako, desberdintasuna neurtzeko adierazleak esparru guztietako adierazleak neurtzea proposatu da: berrikuntza, prestakuntza, enplegua, zerbitzu publikoak, etab.

Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jo du Europako lehentasunak eta tokiko eta eskualdeetakoak bateratzea, strategiak bateragarri bihurtzeko. Emaizak ebaluatzeko, berriazko adierazleak erabiliko dira. Eusko Jaurlaritzak Lisboako Strategiaren egiturazko adierazleak eguneratzea proposatu du ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-egoeretara egokitzeko.

Eusko Jaurlaritzak onartu du Espainian EB 2020 estrategia garatzeko eskualdeen eta herrialdeen partaidetza eraginkorra sustatzeko erakunde-mekanismoak ez direla nahiko eta Erreforma Plan Nazionalen jarraipen-bilerak burokratikoak direla eta partaidetza txikia dutela. Horregatik, strategiaren fase guztietan eskualdeetako eta tokiko erakundeek zeregin aktiboa izatea eskatu da, eskualdeak kohesio-politikaren agintaritzaren alderdi oso garrantzitsua baitira (legegintzako eskumenak dituztenak, batez ere).

Eskualdeetako garapen-mailen arteko aldeak murriztu ahal izateko, Batasunaren ikuspegi estrategikoaren eta aurrekontu-politikaren artean beharrezkoa den koherentzia ezartzea nahi da. Europa 2020 strategiaren hiru lehentasun nagusiek (ezagutzan oinarritutako hazkundea, herritarren eginkizuna gizarte inklusiboetan eta ingurumena errespetatzen duen ekonomia lehiakorra) etorkizuneko kohesio-politikaren zuzentzarauak osatu beharko dituzte.

Amaitzeko, Europa 2020 Estrategia eraginkortasunez komunikatzeko eta dibertsitate kulturala integratzeko hizkuntza koofizialek duten eginkizuna azpimarratu da.

## **2.- Eskualdeen partaidetza Erreforma Plan Nazionalan (2010eko urria)**

Europako Batzordeak azaroaren 12a baino lehen Europa 2020rako Erreforma Plan Nazionala (EPN) proiektu bat egiteko eskatu zuten estatu kideei, non estatu kide bakoitzak estrategia betetzeko plangintza zehatuko baitzuen. Hurrengo alderdiak jorratzea eskatu zitzaion: epe ertaineko hipotesi makroekonomikoa, EBren helburu nagusiak adierazteko helburu nazionalak, hazkunderako eta enplegurako oztopo nagusien identifikazioa eta aurreikusitako neurri nagusiak. EPNak 2011ko apirilera bukatuta egon behar ziren.

Hori dela eta, estatu kideetan Erreforma Plan Nazionalak nola eramaten ari ziren ikusteko kontsulta bat antolatu zuen Eskualdeetako Lantaldeak, Europa 2020ari buruzko lehen jarraipen txostenean informazio hori txertatzeko helburuarekin.

Kontsulta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin zuen. Guztira EBko eskualdeez eta tokiko erakundeez osatutako 18 herrialdeetako ordezkariak parte hartu zuten kontsultan.

Galdetegi honek agerian utzi zuen arduradun diren autoritate nazionalak ez dutela Eusko Jaurlaritza aukeratu Europa 2020 Estrategiaren aplikazioan parte hartzeko. Horregatik, Europa 2020ak ez du Erreforma Plan Nazionalen eraketan parte hartu, nahiz eta egitura-funtsek diruz lagundutako programa definitzeko 2007-2013 Erreferentziazko Esparru Estrategiko Nazionalaren (MENR) barruan egon.

## **3.- Ekimen bereizgarria «Batasuna berrikuntzaren alde» (2010eko azaroa)**

Kontsulta Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak egin zuen. Guztira EBko 11 estatu kideetako 17 eskualde eta tokian tokiko erakundeak parte hartu zuten kontsultan.

Ekimenean aipatutako 34 konpromisoetatik, gure eskualdearen garapenerako lau ezinbestekotzat jo ditu Euskadik. Bizi dugun krisi-egoera hau ekoberrikuntza prozesuaren bultzagarria izan daiteke, eta hori, aldi berean, eskualde iraunkorragoa eta karbono gutxi erabiltzen duen eskualdea lortzeko trantsiziozko pausoa izan daiteke. Ekoberrikuntza eskualdeen lehiakortasuna hobetzeko aukera bat da, industria astun tradizionalaren berritze ekologikoa gauzatzeko teknologia garbiago eta

eraginkorragoen alde egiten baitu. Trantsizioaren alor garrantzitsuenak hauek izango lirateke: energia, mugikortasuna, industria eta eraikuntza.

Eraldaketa horrek, batetik, energia edo material berriak bezalako alorretan teknologia garatzea eragingo luke, eta, bestetik, euskal industriaren esportazioak areagotuko lituzke.

Berrikuntzako politika berrien garapenaren beste eragileetako bat gizarte-berrikuntza da. Erantzukizun sozial korporatiboa sustatzearen garrantzia azpimarratu da, enpresen lehiakortasuna areagotzeko oinarritzko elementuetako bat baita.

Helburu horiek lortzeko gure eskualdeak aurre egin behar dien erronkarik handienak isurketen murrizketarekin eta energia-kontsumoekin lotuta daude. Hazkunde ekonomikoaren eta erregaien kontsumoaren arteko lotura apurtu egin beharko litzateke. Ingurumen-berrikuntza ezinbestekoa da kontsumo iraunkorra izateko eta modu orokorrean enpresen eta kontsumitzaileen arteko ekoizpen-sistema berria sortzeko. Hortaz, erronka hauek ditu Euskadik: ingurumen-prozesu berritzaileetan ETEn inplikazioa hobetu behar du eta kontsumitzaileak hezi behar ditu.

Halaber, adimen estrategikorako tresna berriak txertatu egin beharko lirateke iraunkortasunerako berrikuntzaren seigarren fasean ematen ari diren aldaketa sakonak ulertu ahal izateko.

Amaitzeko, Euskadin egiten diren jardunbide egokien adibide ugari ematen dira, ekimen bereizgarriak sustatzen dituzten jardueren antzeko izaera dutenak.

### **Mugaz haraindiko lankidetzaren esparruan**

#### **Lurralde Lankidetzarako Europako Taldearen (LLET) araudiaren berrikuspena (2010eko uztaila)**

Kontsulta hau Eskualdeetako Lantaldeak, EBko Kontseiluko presidentetzako hiru kideek (Espainia, Belgika eta Hungaria), Europako Batzordeak eta Interact programak elkarrekin antolatu dute. Horien helburua 2011n egingo den araudiaren berrikuspenean LLETi buruzko iritziak jasotzea da, estatu kideenak, ezarritako LLET eta sortze bidean dauden LLETena, tokiko eta eskualdeetako erakundeena eta interesa duten beste alderdiena.

Kontsultaren muina araudiaren berrikusketara begira hobetu edo aldatu beharreko legearen alderdiak dira, eta horretarako LLETen balio erantsia eta potentziala kontuan hartuko dira ere.

LLETak mugaz haraindiko lankidetzarako tresnak dira eta horien bidez eskualdeek eta hiriek elkarren arteko proiektuak aurrera eramango dituzte, botere zentralen hesi administratiborik edo onarpen-prozedurarik gainditu behar izan gabe. Hala, izaera juridikoko baliabide horren bidez EBko edo estatuko finantzazio-mota guztiak eskatu daitezke eta elkarte publiko-pribatuetan funts pribatuekin konbinatu.

Kontsulta Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak egin zuen eta Akitania/Euskadi euroeskualdeko kide gisa izandako esperientzia azaldu zuen. LLET hori arrazoi politiko eta administratiboak zirela medio sortu zen, mugaz haraindiko lankidetzan aurrerapenak egiteko xedearekin. Guztira EBko eskualdeetako eta tokiko 91 erakundek parte hartu zuten kontsultan.

Kontsulta horretan, Eusko Jaurlaritzak LLETaren araudiarekin lotutako zalantza eta zailtasun nagusiak adierazi zituen: alde batetik, LLETaren izaerarekin erlazionatutako xedapenei dagozkienak (barne-zuzenbideak LLETaren izaera publikoa edo pribatua zehazterakoan zeregin oso garrantzitsua baitu), eta, bestetik, estatu kidearen interes publikoari dagozkienak (estatu batek, bere izaera dela eta, LLETaren eraketan eta funtzionamenduan hainbat rol baititu).

Estatu kideen araudiaren aplikazioari dagokionez, zailtasun handienak dira, batetik, araudia aplikatzeko neurri nazionalen onarpena, araudian xedatutakoak baino baldintza gehiago eransten dituztenak, eta, bestetik, estatu kideek onartutako neurri nazionalen arteko ezberdintasunak. Horrenbestez, araudian zehaztutakoa kontuan hartzea eta/edo gainerako herrialdeek ezarritako xedapenen arteko koordinazioa handitzea proposatu da.

Eusko Jaurlaritzak mugaz haraindiko lankidetzaproiektu eta programak kudeatzeko LLET bat eratzearen abantailak eta desabantailak aipatu ditu. Subsidiarotasun printzipioan oinarrituta, LLETa programak kudeatzeko baliabide egokia dela uste du, kideen arteko lidergo partekatua eta orekatua sortzen baitu. Hala ere, kontuz ibili behar da LLETak kide gehiegi ez izateko, kudeaketa oztopatuko bailuke horrek.

Auzotasun-politika eta LLETetan hirugarren herrialdeetako kideak sartzea izango lirateke ebatzi gabeko alderdi bakarrak. Bi horiek argi eta garbi zehaztu beharko lirateke araudian, baita parte hartu dezaketen hirugarren herrialdeen zerrenda egin ere. Eusko Jaurlaritzaren arabera, zerrenda horrek barne hartu beharko lituzke EBko kide izateko herrialde hautagaiak eta hautagai potentzialak, Europako Batzordeko estatu kide guztiak eta Europako Auzotasun Politikako herrialde guztiak; LLETren helburuak hala gomendatuz gero eta partaidetza behar bezala zehatuz gero (finantzari dagokionez, batez ere), erakunde pribatuek ere parte hartuko dute.

## 5.- Subsidiarotasunaren azterketa

Lisboako Tratatu indarrean sartzearen eta subsidiarotasunaren alorrean Eskualdeetako Lantaldeari emandako erantzukizun berrien ondorioz, Eskualdeetako Lantaldeak barne-araudi berria onartu zuen eta 2010eko urtarrilaren 10ean indarrean sartu zen. Europar Batasuneko Justizia Auzitegian helegitea aurkezteko prozeduraz gain, «komiteko irizpenek subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioen aplikazioari berriazko erreferentzia egitea» eskatu da. Ideia horrek Eskualdeetako Lantaldearen eskumenen arteko oreka errespetatzeko erantzukizun berria zuzenean adierazten du, eta subsidiarotasuna dela-eta etorkizunean egindako helegiteak justifikatu ahalko lituzke.

Hortaz, EBko legegintza-proposamenen bateragarritasunaren ebaluazioa Eskualdeetako Lantaldeko irizpenen zati sistematikoa bihurtu da. Bestalde, subsidiarotasunaren, proportzionaltasunaren eta legeak hobeto egiteko dimentsioek gero eta garrantzi handiagoa dute EBko legegintzaz kanpoko dokumentuen inguruko komitearen irizpenetan.

Eskualdeetako Lantaldeak 2007ko apirilean sortutako Subsidiarotasunaren Jarraipen Sarea kontsulta-plataforma bat da, subsidiarotasunaren alorrean Eskualdeetako Lantaldeko ekimen politikoak laguntzeko balio duena. Komiteko mahaiak 2010erako sarearen koordinatzailea izendatu zuen: Valcárcel Siso lehen presidenteorde jauna.

Gaur egun, EBko eskualdeetako eta tokiko gobernuetako sareko kideak 100 baino gehiago dira. Horrek esan nahi du sortu zenetik, Subsidiarotasunaren Jarraipen Sarearen partaidetza bikoiztu egin dela<sup>8</sup>. Bai Eusko Jaurilaritza bai Eusko Legebiltzarra sare horretako kide dira.

### **2009-2010 Ekintza Plana**

Eskualdeetako Lantaldeak subsidiarotasunaren alorrean 2009-2010 Ekintza Plana argitaratu zuen Europako eskualde eta hirietan Subsidiarotasun Printzipioaren aplikazioari buruzko esperientzia eta jardunbide egokienak identifikatzeko asmoz. Subsidiarotasun Printzipioaren Jarraipen Sarearen osagarria da eta ikuspegi horretatik EBko hainbat politika aztertu ditu.

Horretarako bost lan-talde osatu ditu, gai hauek jorratu dituztenak:

<sup>8</sup> Ikus II. eranskina.

- 1.- Gizarte berrikuntza, hazkunde ekonomikoaren motorra.
- 2.- Etorकिन gizarteratzea hiri-guneetan.
- 3.- Herritarren partaidetza konponbide energetiko iraunkorretan.
- 4.- Osasun desorekak EBn.
- 5.-Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka.

Horiek guztiak erkidego eta nazioarte mailako helburuak erdiesten eskualdeek nola lagundu dezakegun erakusteko sortu dira. Lan-taldeek lortutako emaitzak 2011ko martxoan egingo den Subsidiariorotasunari buruzko Konferentzian aurkeztuko dira.

### **Subsidiariorotasuna gizarte-berrikuntzan**

Eskualdeetako Lantaldeak gizarte-berrikuntza subsidiariorotasunaren ikuspegitik aztertzen zuen txostena egiteko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, laugarren sektorea deritzogunarekin erlazionatuz. Horretarako, gizarte-berrikuntza arduratsuaren alorreko Europako jardunbide egokienak bildu eta aztertu behar zituen, kohesioari, enpleguari, lehiakortasunari eta hazkundeari egindako ekarpenen bidez aurrerapenaren motorrak diren aldetik.

Talde honen lana, beraz, jardunbide horiek identifikatzea eta amaiera-txosten bat egitea izan da, non subsidiariorotasunaren printzipioa gizarte-berrikuntzan aplikatzeko gomendio politikoak zehaztu baitira.

Talde honen liderra Euskadi izan zen, eta kide guztien artean Enpresen Erantzukizun Soziala (EES) berariaz aztertzea adostu zuten. Horretarako, kide hauek parte hartu zuten: Veneto (Italia), Polonia Handia (Polonia) eta Flandria (Belgika). Nabarmendu beharra dago lan horretarako, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Innobasqueren eta Eusko Jaurlaritzako EES eta Berrikuntza Zuzendaritzaren laguntza jaso zuela.

Hona hemen Euskadin identifikatutako kasuak:

IZAITE – Erakunde publikoekin elkarlanean ari diren enpresa pribatuen elkarte da, ingurumenaren garapen iraunkorreko proiektu bat aurrera eramaten ari dena.

XERTATU – Lankidetzak publiko-pribatua duen erakunde-ekimena da, jarduera kulturalak eta kudeaketarekin lotutakoak egiten dituen, batik bat.

FIARE – Aurrezte eta kudeaketa sozial eta arduratsuaren aldeko lankidetzak publiko-pribatuaren adibidea da, gizarte-kohesioa, elkartasuna, gardentasuna eta banku etikoa sustatzen dituen.

Adibide horietan, agerian utzi da EESa ezinbesteko motorra dela gizarte-berrikuntza eta lehiakortasuna garatzeko, enplegua sortzeko eta hori gizartearen behar berrietara egokitzeko. Egoera horretan, eskualdeak eta udalerriak funtsezko eragileak gara erantzukizun sozialaren sustapenean, eta beraz, hura gizartean txertatzeko erantzukizuna gure gain hartu behar dugu. Lidergo hori izateak esan nahi du enpresak eta gizarte-eragileak EESan inplikatu behar direla eta horren onurak ulertu eta baloratzea lortu behar dutela.

Hauek izan ziren taldearen gomendioak:

- Eskualdeen arteko lankidetzarako eta EESaren aldeko aliantza eta hiru puntu nagusiak martxan jartzeko jarduerak sustatzea:
  - 
  - o EESaren sentiberatzea handitzea, ezagutza hobetzea eta aurrerapenak jakinaraztea.
  - o EESa integratzen eta lankidetzarako koalizio irekiak garatzen laguntzea.
  - o EESaren aldeko ingurunea bermatzea (adibidez, gutxieneko legalak ezartzea).
- Gizarte-berrikuntzarako baliabideak hedatzea eragileen arteko harremanak eta lankidetzara publiko-pribatua sustatzeko eta ekimenak eta inpaktuak neurtzeko metodologia komunak eta gizarte-berrikuntza laguntzeko azpiegitura berriak garatzeko, sormena eta harremanetarako gaitasunak ahal bezain beste baliatuko dituzten antolakuntza-eredu berriak sustatuz.
- Adierazle globalak dituzten sistemak sortzea eta erabiltzea, eskualde mailakoak eta ahal bada, euren artean loturarik ez dutenak, Europako bizi-kalitatearen, berrikuntzaren eta iraunkortasunaren aurrerapenak jarraitzeko aukera ematen dutenak eta baliabideen erabileran, ekoizpenean eta kudeaketan ekonomiaren, gizarte-kohesioaren eta eraginkortasunaren adierazleak txertatuko dituztenak.
- Europako gizarte-ereduaren baloreak berreskuratzea eta EBko maila guztietan hedatzea.
- Sormena eta harremanetarako gaitasun guztiak baliatzen dituzten antolakuntza-eredu berriak txertatzea, enpresei lehiakortasuna hobetzen eta ahalmen berritzailea garatzen lagunduko dietenak.



- Gizarte-berrikuntzan ikerketa sustatzea, emaitzen ustiaketa eta erabileraren bidez gizartera itzuliko den ezagutza sortzeko helburuarekin.

Eskualdeetako Lantaldearen txosten horrek erakunde mailako lidergoa izateko eskatu zion Europako Batzordeari, europar gizarteko indar guztien lankidetzaren bidez, «konfiantzako dinamika» berria sortzeko. Sistemari aldaketak eragiteko eta hobekuntzak txertatzeko ahalmena agerian utzi zuen eta eskualdeetako gobernuei erantzukizuna beren gain hartzeko aukera eman zien, sektore pribatuarentzako jardunbide egokien eredu gisa arituz.

Azken batean, Europako agintaritzan eredu berritzailea eta partaidetzazkoa sustatzearen alde egin zen, Erkidegoko politikak aurrera eramaterakoan EESaren zeharkako efektua aintzat hartuko duena, eta subsidiarotasun-printzipioaren arabera aurrez aipatutako ekintzak maila guztietan koordinatu eta indartzea proposatu zen.

Euskal gizarte-berrikuntzaren arloko jardunbide egokiak hedatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak 2010ean Bruselan Open Days jardunaldiak egin bitartean antolatutako subsidiarotasunari buruzko tailer telematikoan parte hartu zuen<sup>9</sup>. Bertan, lan-taldeko kide batekin elkartu zen, Polonia Handia eskualdearekin.

### **Ikerketa-bisita Helsinki-Nilandiako eskualdera (Finlandia)**

ECOS Batzordeko burua izateaz aparte, Helsinki-Uusimaa eskualdera ikerketa-bisita bat egiteko aukeratu zituzten zortzi kideetako bat izan zen Euskadi. Bisitaren xedea Finlandiako eskualde horrek gizarte-berrikuntzaren alorrean egindako ahaleginak tokian bertan ezagutzea eta horietatik ikastea zen.

Gizarte-berrikuntzari gogor ekin dion eskualdeetako bat da. Izan ere, estrategia politikoa berriro definitu egin du gizarteari eragiten dion berrikuntza-gaitasuna lantzeko, eta ez bakarrik teorikoki, baizik eta praktikoki ere bai, udalerriekin, unibertsitateekin, enprekin eta beste instantziekin elkarlanean arituz.

2010eko irailaren 6an egindako ikerketa-bisitan, berrikuntzaren alorrean kontzeptu eta jardunbide berrien beharraren inguruan eskualdeak egindako analisi baten emaitzak aztertu egin ziren, Europa 2020 estrategia eta horrek eskualdean duen eragina ikertzerakoan lortu zirenak.

Bisitaren helburua kasu batzuen ikerketaren bidez, plan eta alderdi praktikoak onartzea izan zen. Honako hau aztertu zen:

<sup>9</sup> Ikus Open Days atala.

- Epe motzeko interes politikoak epe luzeko ekonomia- eta gizarte-garapenaren beharrekin koordinatzeko modua.
- Berrikuntza-politikak sektore publikoko jardueren berrantolaketan duen zeregina zehaztea globalizazioak eragindako aldaketei eta beharrei erantzuteko.
- Finlandiako esperientziatik beste eskualdeentzat baliagarria izango den ikaskuntza ateratzea.
- Eskualdeetako Lantaldearen funtzionamendua hobetzea eskualde berritzaileenei laguntza emateko.

Bidai horretan, Eskualdeetako Lantaldearen lehentasunezko helburuak Helsinki-Uusimaa eskualdearentzat baliagarria izatea zen, nola mikro eta makropolitikaren mailak hobeto integratzeko modu berriak eratzeko hala lankidetzaren sustapenaren bidez bi maila horiek elkarri onurak ekartzeko modu berriak sortzeko.

### **Subsidiariorotasuna energian eta klima-aldaketan**

Europa 2020 estrategiaren esparruan eta 2009-2010 Ekintza Planaren barruan Grupo de Lucha contra el Cambio Climático taldea ere zegoen. «Lucha contra el cambio climático: Implicado al público en las soluciones energéticamente sostenibles» izenburupean, subsidiariorotasun-printzipioaren aplikazioan Europako hiri eta eskualdeek energiaren arloan egindako esperientzia eta jardunbide egokienak identifikatzeko eta erakusteko sortu zen talde hori.

Talde horrek Vorarlbergeko Eskualde Gobernua (Austria) izan zuen buru gisa, eta Eusko Jaurlaritzaz gain, Göteborgeko (Suedia), Erlangengo (Alemania) eta Hengeloko (Herbehereak) udalek ere parte hartu zuten. Energia eta Meategien Zuzendaritzaren eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) laguntzarekin, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia horren partaide izan zen.

Euskal erakundeak konpromiso hauek hartu zituen: lurraldeko jardunbide egokien kasu zehatzak identifikatzea, deskribatzea eta taldeko kideei aurkeztea, aurkeztutako kasuen ondorioak jasoko zituen amaierako txostena egiten laguntzea eta alor horretan iradokizun politiko zehatzak egitea.

Hauek izan ziren Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako jardunbide egokien kasuak: ibilgailu elektrikoaren bultzada Euskadin eta Eraikinen Energia Ziurtapena. Lehenengo adibidearekin erronka berriak gainditzeko eta ekonomiaren garapen iraunkorraren alde egiteko eskualdeek dugun gaitasuna eta potentziala adierazi nahi izan zen. Bigarrenak argi utzi zuen Batasuneko helburuak lortzeko eskualdeak oso aurreratuak edo Erkidegoko legeriaren aurretik egon gaitzkeela: Energia-eraginkortasunaren

ziurtagiria, duela zenbait urte Euskadin eskatzen hasi zena, Batasuneko herritar guztientzako beharrezkoa bihurtu da <sup>10</sup>.

Gizarte-berrikuntzaren kasuan bezala, lan-talde horrek eskuratutako emaitzak 2011n egingo den Subsidiariorotasunari buruzko Europako Goi Bileran aurkeztu beharko dira.

Hauek dira Eusko Jaurlaritzak lan horretatik ateratako ondorio orokorrak:

- 1.- Klima aldaketaren aurkako borrokan konponbide energetikoak bilatzeko beharrezkoa da Europa mailako helburuak zehaztea eta EBn dagokion legeria ezartzea. Legeria horrek subsidiariorotasun-printzipioa errespetatu behar du, oinarritzko bi baldintzak betez: EBren jardutea beharrezkoa izatea eta balio erantsia ematea.
- 2.- Subsidiariorotasuna aztertzerakoan, printzipio horren interpretazio positiboa egin behar da, EBren helburuak lortzera guztiz bideratzen baitira eskualdeak.
- 3.- Hortaz, EBn erabakiak eskualdeekin batera hartu behar dira, eskualdeei beren politikak aurrera eramateko maniobra tarte eta malgutasun nahikoak emanez.
- 4.- Europako legeriak gutxieneko baldintzak zehaztu behar ditu, nahi izanez gero, eskualdeei konpromiso handiagoak hartzea eta Europako helburuen betetzean harago joatea ahalbidetuko dietenak.
- 5.- Europako legeriak bere proposamenen eragina aztertu behar du eskualde-mailaraino, eta legegintza ekimenek eskualdeentzat eta tokiko erakundeentzat duten administrazio- eta finantza-kargak zehaztu eta neurtu behar ditu.
- 6.- EBk eskualdeetako, herrialdeetako eta Europako ekimenen arteko koordinazioa hobetu behar du, ahaleginak batzeko eta lehiakorragoak eta eraginkorragoak izateko.

---

<sup>10</sup> 2002/91/EE zuzentaraua, 2010/31/EB zuzentarauak aldatutakoa.

## **Subsidiariorotasunari buruzko kontsultak**

Subsidiaritate Printzipioa Kontrolatzeko Sarearen esparruan, Erkidegoko etorkizuneko arauen subsidiaritate eta proportzionaltasun printzipioak betetzeari buruzko berriazko kontsultetan parte hartu du Eusko Jaurlaritzak, Eskualdeetako Lantaldeak eta Europako Batzordeak antolatzen dituztenak. Sareko kide diren eskualdeetako eta tokiko erakundeen erantzunak Europako Batzordera bidaliko dira zuzenean – amaierako txosten batean sistematizatuta- eta/edo Eskualdeetako Lantaldeko txostengileek erabiliko dituzte euren irizpenetan txertatzeko, eta, azken batean, Erkidegoko eztabaida politikoan eransteko.

### **1.- Politika ekonomikoen koordinazioa indartzea (2010eko iraila-azaroa)**

Ekonomia eta finantza-krisiaren ostean, Europako Batzordeak bi komunikazio argitaratu zituen 2010eko maiatzean eta ekainean, ekonomia-politiken koordinazioa indartzeko bidea urratzera bideratutakoak. Neurri berriak hartzea eta dagoeneko hartutako neurriak indartzea izan zen horietan proposatu zena. Galdera-sorta horren helburua tokiko eta eskualdeetako erakundeen iritzia jasotzea zen aipatutako komunikazioen testuinguruan garrantzitsuak ziren gaien inguruan.

Kontsulta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin zuen. Kontsultaren amaierako txostena argitaratu gabe zegoen memoria hau itxi zenean, hortaz, bertan parte hartu zuten EBko eskualdeetako eta tokiko eskualdeen guztizko kopurua ez dugu ezagutzen.

2020 Estrategiaren aplikazioan estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko lankidetzaz aurrera eramateko hitzarmen formalak ezartzea proposatu zuen Eusko Jaurlaritzak, Erreforma Plan Nazionalak garatzean eta helburu nazionalen eta strategiaren ekimen bereizgarriak betetzean erakunde-maila bakoitzak dituen funtzioak eta zereginak zehaztuko dituztenak. Euskadiren kasuan, hitzarmen horiek Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoan lortu ahal izango dira.

Euskadik uste du Europako Batzordeak estatu kide bakoitzaren estatu azpiko mailak erakundeen arteko koordinazio-proposamenetan txertatu beharko lituzkeela eta araudiko proposamenetan subsidiariorotasun-printzipioa betetzen dela behatu beharko lukeela.

Estatu kideei egonkortasun eta hazkunderako egiunearen helburuak betetzen laguntzeko tresna gisa kohesio-funtsak erabiltzeko proposamenaren aurka agertu zen Eusko Jaurlaritzak, toki-eremuen, eskualdeen eta estatuaren arteko loturatik eratorritako gobernantza ekonomikoan efektu negatiboak eragingo zituelako.

## **2.- Bide-segurtasuneko Europako espaziorantz: bide-segurtasunari buruzko 2011-2020 orientabide politikoak (2010eko urria-abendua)**

Estatu kide ugarietan, eskualdeetako edo probintziako erakundeek landa eta bigarren mailako errepideak kudeatzen dituzte. Era berean, istripu-kopuru handia gertatzen den hiri-eremuen kasuan, udalerriek eta hiriek errepide sarearen gehiengoa kudeatzen dute. Galdera-sorta hau, beraz, Batzordearen «Hacia un espacio europeo de seguridad vial» (2008. urtea, 811 amaierakoa) komunikazioaren inguruko eskualdeetako eta tokiko eskualdeen jarrera komuna eraikitzeko eta horren inguruko Europako eskualdeen esperientziak ezagutzeko helburuarekin sortu zen.

Kontsulta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Trafiko Zuzendaritzak egin zuen. Guztira EBko 5 estatu kideetako 7 eskualdek eta tokian tokiko erakundek parte hartu zuten kontsultan.

Galdetegi horretan Euskal Autonomia Erkidegoak ibilgailuen trafiko eta zirkulazioaren alorrean dituen eskumenak aditzera eman ziren eta Bide Segurtasuneko 2010-2014 Plan Estrategiakoa azaltzen da. 2007-2010 Planaren emaitzak oinarri hartuta, bide-segurtasuna ahalik eta gehien sustatzera eta mugikortasun iraunkorragoa eta seguruagoa izatera bideratuta zegoen. Hona hemen hiru helburu nagusiak: errepideetan hildakoen kopurua murriztea, arrisku talde bakoitzeko istripu-kopurua murriztea eta mugikortasun iraunkorra eta segurua sustatzea Euskadin.

Halaber, Euskadi beste eskualde mugakideekin lankidetzan aritzen dela azaldu zen, adibidez, bidetako azpiegituraren mugaz haraindiko arazo zehatzen eta komuneren kudeaketan (auto pilaketak data eta ordu jakinetan, besteak beste).

Bide Segurtasuneko 2007-2010 Plan Estrategikoarekin emaitza bikainak lortu ziren, EAEko trafiko-istripuetako hildakoen eta hil diren oinezkoen kopurua erdia baino gehiago murriztu baitzen. Hori EBko beste eskualdeetara esportatu daitekeen jardunbide egokiaren adibidea da, nahiz eta amaierako helburua hildakoen kopurua zero izatea den.

### 3.- Biodibertsitate-politika 2010etik aurrera (2010eko iraila-urria)

Eskualdeetako Lantaldeak, legegintza aurreko fasean, Biodibertsitateari buruzko Europako estrategia 2010etik aurrera strategiaren eraginaren azterketan parte hartu zuen Europako Batzordearekin adostutako lankidetzarako esparru-hitzarmenari esker. Horregatik eta aldez aurretik, Eskualdeetako Lantaldeak galdera-sorta horretan parte hartzeko eskatu zien eskualdeei eta udalderriei, horien lurraldeetako biodibertsitateari buruzko datuak eman zitzaizkien, alor horretako etorkizuneko politikaren diseinuan laguntzeko.

Europako Batzordeak ekimen berri bat proposatu aurretik, etorkizuneko araudiek EBko eskualde eta udalderrietan izan ditzaketen ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-ondorio potentzialak aztertzean datza eraginaren azterketa.

Eraginaren azterketa subsidiariorotasun-printzipioaren zati da, eta batzordeari eskualdeei eta tokiko eta eskualdeetako autoritateen interesei buruzko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak ematea du xede gisa. Hartara, proposamenaren eragin potentzialaren azterketak erabakia hartu behar dutenei laguntzen die, aukera politikoen abantailen eta desabantailen berri izaten.

Azterketaren eraginaren bidez, legegintzako ekimen bakoitzarekin batera batzordeak argitaratzen duen amaierako inaktuaren ebaluazioa egiten lagundu nahi du komiteak, eta ebaluazio horrek lurralde-eraginari egindako ekarpenak barne hartzea nahi du, tokiko eta eskualdeetako autoritateek kontsultatik ateratako ondorioen edo egindako ekarpenen arabera izango direnak.

Eraginaren azterketa hori Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitateko eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak prestatu zuen. Guztira EBko eskualdeetako eta tokian tokiko 13 erakundek hartu zuten parte kontsultan.

Eusko Jaurlaritzak biodibertsitatea eta ekosistemak gobernuaren lehentasun nagusia direla nabarmendu zuen. Izan ere, ingurumen ebaluazioko txostenak bideratzerakoan kontsulta-txostenak egiten ditu. Aldi berean, Natura 2000 Sarearen eta EAEko gainerako eremu babestuen kudeaketaren plangintza egiten du. Gainera, Espezie Mehatxatuen Katalogoa du.

Horrez gain, Gobernuak Euskadiko biodibertsitatearen egoera aztertzen du, batik bat Natura 2000 Sareko eremuak kontserbatzeko baliabideak sortzeko esparruaren

barruan, baina baita hegazti faunaren jarraipen-programen bidez ere. Horretatik ondorioztatu daiteke orokorrean, egoera ez dela nahi bezain ona, nola habitaten eta espezieen kontserbazioari dagokionez, hala lurzoruaren artifizializazioari edo lurraldearen zatikatzeari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, aurreko urtekoekin alderatuta, biodibertsitatea murriztearen kausak ez dira aldatu. 2011rako ingurumen-zerbitzuen diagnostikoa aurreikusi egin da, Euskadin Milurtekoko Ekosistemak aztertzearen bidez egingo dena.

Euskadin, LIFE programak kofinantzatutako zenbait proiektu garatu dira Natura 2000 guneetan. Hala ere, landa-garapenera bideratutako funtsekin alderatuta, onura horiek jaso ditzaketen pertsonak diru-laguntzak ezagutzen ez dituztela uste da. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da egun dauden finantzaketa-tresnak berrikustea eta benetan biodibertsitatea babesten laguntzen duten ildoak eta programak lehenestea.

Klima aldaketa moteltzeko neurri gisa proiektu hauek aipatzen dira: Deba, Lakorzana eta Urdaibaiko hezeguneen zaharberitzea eta haize-energiaren aldeko apustua. Azkenak arazoak sortu ditu biodibertsitatearen babesarekin, eta hitzarmen bat adostera behartu du (Itun eolikoa), Natura 2000 Sareko Haize Energiaren Lurralde Planeko proiektuak alde batera utziz. Trenbideko garraioaren aldeko apustuak ere biodibertsitatearen babestea eragotzi dezake.

Eskualdeetako eta tokiko erakundeak eta alderdi interesdunak Natura 2000 Sareko kudeaketa-tresnak egiteko prozesuan sartu dira. Beste autonomia-erkidegoekin batera egindako kudeaketari esker lorpen hauek erdietsi dira: konektibitatearen eta korridore ekologikoaren alorreko koordinazio-hitzarmenak, mehatxupear dauden espezieentzako kudeaketa-planak eta espezie jakin batzuk kontserbatzeko programak. Estatu mailan, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoaren ingurumen-ebaluazioaren inguruan kontsulta egin zaio Euskadiri. Halaber, Euskadi INTERREG IVC proiektuko kide da, REVERSEV deitu izan dena, Europar biodibertsitatea babestu eta balioesteko eskualdeetako trukeen eta politiken ingurukoa.

## ERKIDEGOKO PROZESU ERABAKITZAILEAN ESKU HARTZEKO BESTE TRESNA BATZUK

### 6.- Autogintzaren krisiari buruzko eskualde-arteke taldea

2009. urtean eta Jean-Yves Le Drian Britainiako eskualdeko presidenteak hala eskatuta, Europako eskualdeetako eta tokiko 55 ordezkari osatutako lantaldea edo «taldeartea» eratu zen automobilgintzaren sektorea laguntzeko neurriak eta tresnak proposatzeko. 2010. urtean zehar, taldearte horrek oso jarrera aktiboa izan du, hamar aldiz baino gehiagotan bildu baita sektorean neurriak hartzearen aldeko mintegiak antolatzen eta jarrera politikoak prestatzeko.

Munduko ekonomiaren krisi globalaren harian, estatueto ekonomiek haren ondorioak pairatzen hasi ziren autoen sektorean, ibilgailuen salmentak beheraka handiak izan baititu. Komeni da gogoratzea sektore horrek, zuzenean edo zeharka, hamabi milioi baino gehiagoko herritarrei ematen diela lana, hau da, EBko langileen % 10ari.

#### «Autogintzaren krisia» taldeartearen bilera politikoa. Brusela, 2010eko otsailaren 10a.

83. Osoko Bilkura 2010. urteko lehenengoa izan zen, eta bertan, Eskualdeetako Lantaldeak irizpen bat onartu zuen, Europako automobilgintza sektorearen erronkei aurre egiteko eta lurralde-ezarpina indartzeko neurri adostu eta iraunkorrei buruzkoa. Dokumentu hori taldearteko kideen arteko lankidetzaren emaitza da, Europar Batasuneko hamabi herrialdeetako Europako 55 eskualde ordezkari dituztenak.

Irizpenaren bidez, Eskualdeetako Lantaldeak Europarentzeko *New deal* eskatu zuen automobilgintzaren sektorean. Europako herrialde ugari pairatzen duten arazoa da eta horri milaka pertsonen lanpostua galdu dutela gehitzen badiogu, eragindako gizarte-ondorioak larriak dira. Hauek dira eskabide nagusietako batzuk:

- Europako finantzaketa-tresnen eta prozeduren malgutzera, krisi egoerari aurre egiteko behar diren baliabideak lortzeko.
- Europako automobilgintzaren sektorearen garapenerako behatoki bat sortzea, CARS 21 taldearen eta kaltetutako sektoreko eta entitate publikoetako eragileen lanak sustatzeko.
- Sektorearentzako epe luzerako industria-politika sortzea, Europako Batzordea aukera teknologiko batzuen artean hautatzera bultzatuz, karbono igorpenik gabeko kotxea garatzen laguntzeko lehentasuna izan beharko dutenak.



- Automobilgintzaren sektorean berrikuntza sustatzeko aukerei buruzko esplorazio-ekimen bat martxan jartzea, merkaturatu aurretik lizitazio publikoak ezarriz eta gutxiago kutsatzen duten ibilgailuetara igarotzeko trantsizio teknologikoa azkartzeko Europako araudiak duen gaitasuna azpimarratuz.

Taldeartearen izenean, Britainiako presidentea den Jean-Yves Le Drian jaunak (FR/PSE) autogintzaren sektoreko eragile nagusien eta berregituratzearen eraginez kaltetutako lurraldeen artean Europa mailako elkarrizketa sustatzeko garrantzia azpimarratu zuen. Hala, konponbide eraikitzaileak eta komunak lortuko dira eta krisiak kaltetutako langileei laguntza emango zaie.

**«Autogintzaren krisia» taldeartearen bilera politikoa. Ibilgailu elektrikoaren aurkezpena Euskadin, jardunbide egokien adibide gisa. Brusela, 2010eko ekainaren 10a.**

Taldeartearen kideak berriro bildu ziren garbiak eta energiaren aldetik eraginkorrak diren ibilgailuei buruzko Europako estrategia berriaren edukia eztabaidatzeko. Horretarako, Ruth PASERMAN Antonio Tajaniren kabineteko kidea (Industria eta Enpresa Ekimenerako komisarioa) eta Belgikako presidentetzaren ordezkaria Anne PEETERS (Valoniako eskualdeko presidenteordearen kabineteko kidea) parte hartu zuten.

La Sra. PASERMAN presentó en esta reunión la “Comunicación sobre la Estrategia para los vehículos de energías eficientes y limpias”, publicada el 28 de abril de 2010. Estrategiak bi oinarri nagusi ditu: barne errekontzako motor tradizionalen inguruko ikerketan inbertitzen jarraitzea eta lehenengo teknologiak ez diren teknologia berriak sortzeko bide ematea.

Valoniako ordezkariak, PEETERS andreak, Belgikako presidentetzaren lehentasunak aurkeztu zituen, garbiak eta energiaren aldetik eraginkorrak diren ibilgailuei dagozkienak, hain zuzen ere. Belgikako presidentetzaren lehentasunak industria-politika iraunkorra, ETEak laguntzea, clusterrak, normalizazioa eta estandarizazioa direla berretsi egin zuen. Eta Belgikaren jarrera «teknologikoki neutrala» dela gaineratu zuen.

Ondoren eztabaida interesgarria bat piztu zen bi hizlari horiekin. Gai eztabaidatuenak estandarizazio, azpiegitura eta neutralitate teknologikoarekin lotutakoak izan ziren. Eskualdeetako eta tokiko autoritateek estrategian duten papera aintzat hartzea eskatu zuten eskualdeek, bai eta komitea CARS 21 goi-mailako taldean integratzea ere.

Halaber, bilera horretan kotxe elektrikoaren inguruan Euskadik duen estrategia aurkeztu zen. Europako eskualdeen artean, jardunbide egokien adibide gisa Euskadi aukeratu zen, ibilgailu garbiei emandako bulkadarengatik. Guillermo ECHENIQUEK, bere hitzaldian, garbiak eta energiaren aldetik eraginkorrak diren ibilgailuen garapenean eskualdeko gobernua aktiboki lan egiten ari dela adierazi zuen, ibilgailu elektrikoaren garapenean, batez ere. Euskadik estrategia hori erronka tekniko eta industrial gisa ikusten du. Gobernuak estrategia hori definitu du garraioaren sektorean energia-eraginkortasuna hobetzeko modu gisa eta euskal industriaren negozio-aukerak areagotzeko bide gisa. Helburu orokorra da 2020rako, Euskadiko ibilgailu-salmenten % 10 ibilgailu elektrikoek osatzea.

Aipatutako helburua erdiesteko hauek dira jarraitu beharreko pausoak:

- Eskualde osoan zehar hedatutako karga-guneen sarea sortzea.
- Ekipamendu elektroniko eta elektrikoaren euskal sektorea babestea, ibilgailu elektrikoaren inguruko gaitasun industrialak eta teknologikoak garatzeko helburuarekin.
- Ibilgailu elektrikoari eskualdeetako erakundeetara eta herritarrengana iristen laguntzea.
- Eskualdean ibilgailu elektrikoaren txertatzeko eta erabiltzeko esparru legala garatzea.

Estrategia hori txertatzeko, Euskadik hitzarmen bat sinatu zuen Mercedes-Benz enpresarekin, Gasteizen duen fabrikari ibilgailu elektrikoaren eraikuntza sustatzeko. Gainera, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko autogintzako eta energiako clusterrarekin ibilgailu elektrikoaren garatzeko lankidetzaren hitzarmen bat sinatu du. Kanpo Harremanetarako Idazkari nagusiak, bestalde, Euskadi Repsolekin elkarlanean lan egiten hasi dela berritzi zuen. Enpresa hori izango da baterien kargen inguruko aholkuak emango dituen eta karga-estazioen sarea ezartzeko leku aproposenak zehaztuko dituen.

## **CARS 21**

2005ean, Europako Batzordeak CARS 21 taldea (XXI. mendean autogintzaren sektorea lehiakorra izateko araudi-esparrua) martxan jarri zuen, Europako autogintza-industria lehiakorren garapen iraunkorrerantz jarraitu beharreko bidea zehazteko xedearekin. Haren zeregin nagusia Europako autogintza-industriaren araudi-esparruaren barruan politika publikorako epe motzerako, ertainerako eta luzerako gomendioak egitea zen.

2010eko urrian, Erkidegoko gobernuak talde hori berritzea erabaki zuen eta eginkizun berri bat eman zion: ekintza-plan komuna eratzea eta Europako autogintza-industria lehiakorra izateko eta 2020ean mugikortasun eta hazkunde eraginkorra izateko ikuspegia sortzea.

CARS 21 talde horren lanek hainbat ekarpen egiten dituzte: 2020 estrategiari -hazkunde adimenduna, iraunkorra eta integratzailearen alde egiten duelako-. baliabideen erabilera eraginkorraren eta industria-politika berriaren inguruko ekimen bereizgarriari eta garbiak eta energiaren aldetik eraginkorrak diren ibilgailuei buruzko Erkidegoko strategiari.

EBk zehaztutako helburuak erdiesteko, taldekideen kopurua handitu da, sektore publikoko zein pribatuko alderdi interesdun nagusiak barne hartzeko asmoz. Europako Batzordeak izendatzen ditu kideak, eta, gaur egur, honako hauek osatzen dute taldea: autogintzaren industriako fabrikatzaileen ordezkariak, banatzaileak eta hornitzaileak, gizarte-zibileko ordezkariak eta ekonomia eta gizarte lantaldeko, bederatzi estatu kidetako, Eskualdeetako Lantaldeko, Europako Parlamentuko eta Europako Batzordeko ordezkariak.

CARS 21 prozesua hiru mailatan egituratzen da:

- Goi-mailako taldeak (ministroak eta elkarteetako zuzendari nagusiak eta presidentek, besteak beste) ikuspegi politikoa ematen du.
- Taldeko *sherpak* goi-mailako taldearen eta lantaldeen arteko lotura ezartzen du.
- Lantaldeak urtean hiru eta sei aldi bitartean biltzen dira, eta alderdi teknikoek arduratzen dira (berrikuntza, azpiegitura, barne-merkatua, CO2 isurketak, harmonizazioa eta nazioarteko merkatua, etab.).

«Autogintzaren krisia» taldeartean ordezkaria CARS 21 goi-mailako taldean Jean-Yves LE DRIAN da, Britainiako presidentea eta Eskualdeetako Lantaldeko kidea. Bestalde, «Autogintzaren krisia» taldearteko kide diren eskualdeetako aditu teknikoek CARS 21 taldeko lantaldeetan parte hartzen dute.

## 7.- REGLEG-CALRE eskualde-arteko taldea

2006an eta Eskualdeetako Lantaldearen baitan, botere legegilea eta aldi berean komiteko kide izan behar zuten eskualdeetako gobernu eta parlamentuez osatutako taldearte sortu zen. REGLEG-CALRE deituriko taldearte horren xedea eskualde horien interesak defendatzea izan zen estatu azpiko askotariko egiturez osatutako

komite batean: hiriak, udalerrriak, probintziak, kontseiluak, parlamentuak, eskualde administratiboak, legegintzako eskumenak zituzten eskualdeak, etab.

Komiteko agintaldi berriaren (2010-2015) inaugurazioaren ondorioz, taldearteko agintari berriak ere aukeratu ziren. Presidente gisa Ursula MÄNNLE Bavariako parlamentuko diputatua izendatu zen, lehen presidenteorde gisa Jean François ISTASSE Belgikako komunitate frantseseko diputatua eta bigarren presidenteorde gisa Folke SJÖLUND Ålandeko biltzar probintzialeko kidea (Finlandia).

Taldearearen jarduna eskasa da, Eskualdeetako Lantaldek kanpo REGLEG (botere legegilea duten eskualdeetako gobernuak) eta CALRE (eskualdeetako legebiltzarrak) elkarrekin daudenez gero. Hortaz, ahal den neurrian, taldearte hori Eskualdeetako Lantaldeko bileretan gai horiei buruz hartutako jarrerak defendatzen saiatzen da. Jarduera-esparru garrantzitsuei dagokienez, subsidiarotasunaren gaia eta Europa 2020 estrategia identifikatu ziren 2010ean.

## 8.- Europako alderdi politikoak eta Espainiako delegazioa

### Europako alderdi politikoak

Lau talde politikok dute ordezkaritza Eskualdeetako Lantaldean: Europako Alderdi Popularraren taldeak, Europako Alderdi Sozialistaren taldeak, Europako Demokraten eta Liberalen taldeak, eta Nazioen Europaren aldeko eta Aliantza Europarraren taldeak.

Eskualdeetako Lantaldeak 344 kide ditu (eta beste hainbeste ordezko); horietatik % 34,88 (240 kide eta ordezko) talde popularrekoak dira, % 34,59 (233 kide eta ordezko) talde sozialistakoak, % 13,95 (96 kide) demokrata eta liberalen taldekoak, % 4,65 (32 kide) Nazioen Europaren aldeko taldekoak. % 9,30 (64 kide) ez daude alderdi politikoren batera atxikiak. Gainerako % 2,32 izendapenaren zain dauden kideak dira <sup>11</sup>. Eskualdeetako Lantaldearen batzordeak bildu edo osoko bilkurak egin baino lehen, talde politikoetako kideak bildu egiten dira jarrera komunak izateko batzordean edo osoko bilkuran aztertuko diren gaietan. Topaketa horiez gain, aparteko bi bilera egiten dituzte Europako hirietan, talde politikoaren interesekoak diren gaiak eztabaidatzeko.

Talde bakoitzak idazkaritza baten babes du, Eskualdeetako Lantaldeko lanetan kideen partaidetza errazteko ardura duena. Talde politikoen eginkizuna Eskualdeetako Lantaldeak organo politiko gisa duen papera indartzea da, kideen lana bistaratzea, Batasuneko erakundeekin duen lankidetzaren indartzea eta Eskualdeetako Lantaldeko barne-kudeaketa sustatzea.

<sup>11</sup> Datuak 2010eko ekainekoak dira. Izendapenaren zain dauden kideak egotearen arrazoia Europako eskualdeetan eta udalerrietan une ezberdinetan gertatzen diren hauteskundeak dira.

2009ko irailetik, Patxi López lehendakaria Eskualdeetako Lantaldeko kide izendatzearen ondorioz, Eusko Jaurlaritzak Europako Alderdi Sozialistaren barruan dago. Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako Europako urtea zela eta, Europako Alderdi Sozialistak (PES) bi mintegi antolatu zituen <sup>12</sup>, non Eusko Jaurlaritzako bi txostengilek parte hartu baitzuten, eta argazki-lehiaketa bat, «Lankidetzaren bila» deitutakoa eta 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutakoa. Eusko Jaurlaritzak lehiaketan parte hartzeko liburuxkak argitaratu eta banatu zituen. Saria Bruselan egingo zen pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokari buruzko kongresu batean parte hartzea zen.

### **Espainiako delegazioa**

Eskualdeetako Lantaldeko kide guztiak beren estatu-delegazioetan biltzen dira osoko bilkurak hasi aurretik, komitean landuko diren gaietarako buruzko informazioa trukatzeko. 2010az geroztik, Espainiako delegazioaren koordinazioa Extremaduraren esku dago.

Eusko Jaurlaritzak osoko bilkuren aurretik politika mailan egindako bost bileretan parte hartu du, bai eta maila teknikoko informazio- eta koordinazio-bileretan ere, Espainiako delegazioko kideei berriaz eragiten dieten gaiak lantzeko.

Eskualdeetako Lantaldeak Espainiako presidentetza aurkezteko liburuxka bat sortu zuen. Horren diseinuan eta eraketan Espainiako delegazioak parte hartu zuen, eta Eusko Jaurlaritzak, berriz, dokumentua euskarara itzuli zuen eta lurraldean barrena hedatu zuen.

---

<sup>12</sup> Argibide gehiago nahi izanez gero, ikus pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako foroetarako buruzko atala.

## APARTEKO JARDUERAK

### 9.- «Euskadi» turismo-markaren aurkezpena Bruselan (2010eko otsaila)

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuak, Bernabé Undak, Eskualdeetako Lantaldeak Bruselan duen egoitzan Euskadiko turismo-marka berria aurkeztu zuen 250 bat pertsonen aurrean. Bertaratu zirenei Undak gure lurraldea bisitatzera animatu zien, negozio-arrazoiak zein atsegin-bidaia direla medio edota bi interesak konbinatuz. Horretarako erakargarri turistiko garrantzitsuenez baliatu zen: Guggenheim museoa, hiru euskal hiriburu-etako alde zaharra, kostea, sukaldaritza eta Arabako Errioxako ardoak.

Bilerara Bruselan zeuden Europako eskualde guztietako ordezkariak, diplomatikoen kideria, Europako erakundeak, Belgikako euskaldunen taldea eta turismo sektoreko enpresak gonbidatu zituzten.

Ekitaldia Vanessa Sánchez ETBko aurkezleak zuzendu zuen, eta Eusko Jaurlaritzako sailburuaz gain, Eskualdeetako Lantaldeko ordezkari batek, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia Guillermo Echeniquek eta Euskadiko delegatua Bruselan Marta Martínek hitz egin zuten.

Era berean, turismoa sustatzeko Athleticeko jokalaria eta Fernando García Macua presidentea ere bertan izan ziren. 2010ean, taldeak marka hori hedatzeko konpromisoa hartu zuen, arroparen, kirol-poltsen eta taldeko autobusaren bidez eta jokalariek parte hartzen zituzten ekitaldietan.

Ekitaldiari amaiera emateko, Juan María Arzakek prestatutako gastronomia dastaketa txiki bat egon zen.

## 10.-Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako urtea.

### «Las respuestas locales y regionales a la pobreza y la exclusión social» foroa (2010eko ekaina)

Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako 2010 Europako urtearen harira, Eskualdeetako Lantaldeko Europako Alderdi Sozialistak gai horri buruzko foro bat antolatu zuen Bruselan ekainaren 8an.

Ekitaldiak Italiako, Britainia Handiko, Bulgariako, Estoniako, Alemaniako, Poloniako, Begikako, Lituaniako, Herbehereetako, Suediako eta Portugaleko hainbat eskualde eta hiritako 200 aditu elkartu zituen.

Jardunaldian esparru politikoa eztabaidatu zen eta 24 tokiko proiektu aurkeztu ziren, hiru gaien inguruan aukeratu eta antolatutakoak:

- *Gizarte zerbitzuak denontzat irisgarriak izatea.*
- *Jendea lan-merkatuan sartzeko prestatzea.*
- *Herritarrak inklusiboak izatea toki- eta landa-eremuetan.*

Euskadi bere esperientziak kontatzera gonbidatu zuten, Europa mailan gizarte-politikan eta pobreziaren aurkako borrokan jardunbide egokienak dituen eskualdeetako bat baita. Euskadiren hitzaldiak gizarte zerbitzuak denontzat irisgarriak izatea gaia izan zuen hizpide, eta Herbehereetako eta Britainia Handiko bi gizarteratze kasuekin batera aurkeztu zen.

Euskadiren izenean Javier Ruiz mintzatu zen, Lan, Formakuntza eta Gizarteratze sailburuordea. Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema aurkeztu zuen, euskal erakundeen pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan, Gizarte Babeserako eta Gizarteratzeko Euskal Sistema hobetzeko eta indartzeko modu bat bezala.

Euskal sistema horren xedea da pobrezia-tasak populazioaren % 3 baino txikiagoak izatea. Hori lortzeko honako hauek proposatu dira: zerbitzuen sistemaren kalitatea eta unibertsaltasuna hobetzea, lana sustatzeko zerbitzuak osatzea EIN eta LANBIDE zerbitzuekin sare koordinatu eta bateratu bat sortuz eta gizarteratze-prozesuak orokortzea diagnostiko eta esku-hartze soziala lan-tresna gisa hartuz.

**«Gizarteratzera bideratutako etxebizitza politika Euskadin» gaiari buruzko foroa (2010eko azaroa)**

En el marco de la Presidencia belga del Consejo belga de la Unión y el Año Europeo de la Pobreza y la exclusión social, el Grupo Socialista Europeo (PSE) del Comité de las Regiones junto al Grupo socialista del Parlamento de la Región de Bruselas Capital, organizaron un seminario consagrado a la vivienda y la exclusión social.

Mintegiak honela zuen izena: «Abajo y afuera: ¡Más que un techo sobre mi cabeza!. Estableciendo una Agenda Europea de la Vivienda», eta Europako hainbat tokitan PES Taldeak etxebizitzaren inguruan agertzen duen gero eta kezka handiagoan du jatorria.

Mintegi horrek Europako hainbat eskualdetako aditu, ikertzaile eta ordezkari politikoak bildu zituen, esaterako, Kart-Heinz KLÄR PES taldeko presidentea Eskualdeetako Lantaldean eta Rudy VERVOORT alderdi sozialistako burua Brusela Hiriburua eskualdeko parlamentuan. Xedeetako bat etxebizitzaren Europako agenda (gai horren inguruko alderdi guztiak barne hartuko dituen) sortzeko aldeko dinamika eratzeko Eskualdeetako Lantaldeak zituen aukerak aztertzea izan zen.

Beste helburu batzuk izan ziren gai horren inguruan sentsibilizatzea, modu batera edo bestera Europako milioika herritarrei eragiten baitie, eta etxebizitza duina oinarrizko eskubidea eta europar kohesiorako ezinbesteko elementua dela baieztatzea.

Euskadi txostengile gisa parte hartzera gonbidatu zuten, eta ordezkari lanetan Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuordea aritu zen, M<sup>a</sup> Paz Larrumbide, gizarteratzera bideratutako Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politika azaldu zuena. Txostenean, euskal etxebizitza-politiken lehentasunezko ardatzak aditzera eman zituen: alokairua, hiriak birsortzea eta birgaitzea.

Hirien birgaitzea eta birsotzea hirien degradazioa saihesteko eta gizarteratzea eta ekonomiaren susperraldia laguntzeko mekanismo gisa hartu ziren. Bi mekanismo horiek, halaber, lurzoru berriak erabiltzea saihesteko balio dute. Etxebizitza saileko Eraikinak Birgaitu eta Hiria Berroneratzeko Plan Estrategikoak energia-eraginkortasuneko eta irisgarritasun programak aurrera eramateko mekanismoak erabiltzea eta artikulatzea lehenesten du .

Euskal estrategiaren aurkezpenean, alokairu-politikaren aldeko argudioak ere eman zituen Larrumbidek, gizarte-bazterkeria jasateko arriskupean dauden pertsonentzako erregimen egokiena delako, eta hori sustatzeko maizterraren eta jabearen arteko bitartekari modura Eusko Jaurlaritza aritzea defendatu zuen.



Horrez gain, haren politikaren beste oinarritzko elementu bat aurkeztu zuen, gazteentzako zuzkidura-ostatuen sustapena, herri eskupeko lurzoruan instalazio eta zerbitzu komunak dituztenak eta gehienez ere, bost urterako direnak.

## **11.- «La cultura como motor del desarrollo económico local y regional» mintegia (2010eko maiatza)**

Europar, kultura lehiakortasunaren eta eskualdeko ekonomiaren elementu oso garrantzitsua da, EBN hazkundea eta enplegua areagotzen dituelako.

Testuinguru horretan, 2010eko maiatzaren 19an Eskualdeetako Lantaldeko egoitzan egindako mintegiak gai horren inguruko eztabaida piztu nahi izan zuen Europako erakundeen, tokiko eta eskualdeetako autoritateen eta beste gizarte-eragileen artean.

Galiziako Xuntak Fundación Galicia Europa fundazioaren eta Eskualdeetako Lantaldearen laguntza jaso zuen ekitaldia antolatzeko, eta ekonomia- eta gizarte-garapenari kulturak ekartzen dizkion onurak landu nahi izan zituzten.

Mintegiaren lehenengo zatian Europako kultur agendari eta haren industria kulturalen liburu berdeari heldu zitzairen. Bigarrena praktikoagoa izan zen eta Europako zenbait eskualdetako ekonomiaren motor gisa kultura erabiltzearen lau adibide praktiko eman ziren.

Hori dela eta, Euskadi «Bilbo efektua» aurkeztera gonbidatu zuten, Mikel TORAL Kultura Sustatzeko zuzendariaren eskutik egin zena. Hauek dira gainontzeko hiru kasuak: Poloniako Manufaktura Lodz, Belgikako Bozar eta Galiziako Fundación Cidade da Cultura de Galicia.

Guztiak orijinalak izateagatik, eraiki zireneko lurrak berriro definitzeagatik eta sare kulturalak eta nazioarteko harremanak sustatzeko interesa izateagatik hautatu egin ziren.

## OPEN DAYS JARDUNALDIAK

### 12.- Europako Eskualde eta Hirien VIII. Astea

OPEN DAYS jardunaldiek –Europako Eskualde eta Hirien VIII. Astea- 2010eko urriaren 4etik 7ra bitartean 6000 ordezkari bildu zituzten, besteak beste Europako hiri eta eskualdeetakoak, Erkidegoko erakundeetakoak, sektore publiko eta pribatuko profesionalenak, erakunde akademikoenak eta adituenak.

«Lehiakortasuna, lankidetzeta eta gizarte-kohesioa» («Competitividad, cooperación y cohesión social para las regiones de Europa») lelopean, Open Days jardunaldien VIII. Edizioak berrikuntza, eskualde-garapena, ekonomia berdea, lurraldeko eta mugaz haraindiko lankidetzeta eta gizarte eta lurralde kohesioa sustatzeko eztabaidetan jarri zuen arreta.

Lau egun horietan zehar, Eskualdeetako Lantaldeak, Europako Batzordeak eta Bruselako eskualdeetako bulegoek 130 mintegi eta bestelako jarduerak antolatu zituzten, tokiko eta eskualde garapenera eta hazkunde ekonomikora bideratutako ekimenak eztabaidatzeko eta sustatzeko, bai eta EBko hiriek eta eskualdeek aurre egin behar dieten erronkak gainditzeko irtenbideak aurkitzeko ere. Halaber, ildo horretan, Europako eskualdeetan beste 263 mintegi antolatu ziren.

Aldi berean, Open Days jardunaldiak Europako erakundeen eta tokiko eta eskualdeetako autoritateen arteko zuzeneko komunikazio-kanala dira, Europako hiriei eta eskualdeei zuzenean eragiten dieten politika edo erabaki berrien ezarpena ikertzeko balio duena.

Hurrenez hurreneko seigarren urtez, Open Days jardunaldien VIII. Edizioan parte hartu zuen Euskadik. Bruselako delegazioak Europako eskualdeak bildu zituen taldean parte hartu zuen; horiek bi mintegi antolatu zituzten Bruselan, eta beste hainbeste taldeko kideen eskualdeetan. Horietan Eusko Jaurlaritzak aktiboki parte hartu zuen. Halaber, Bilbao Ría 2000 enpresak eta Innobasquek beste mintegi batzuetan txostengile gisa parte hartu zuten, eta bertan «Bilbo efektuari» buruzko esperientziak eta Innobasqueko ereduaz azaldu zituzten, hurrenez hurren. Egun horietan ere ibilgailu elektronikoa erakusteko ekitaldi bat egin zen.

2009. urtean, Patxi López lehendakaria Open Days jardunaldien inaugurazio-saioan mintzatu zen eta krisi ekonomikoaren aurrean eskualdeek duten zeregina defendatu zuen. Mintzaldia Europako eskualdeetako ordezkari politikoen biltzarrean izan zen eta Durao Barroso Europako Batzordeko presidentearen presentzia izan zuen.

**Mintegia: “Eremu atlantikorako estrategia integratzailea: ¿Itxaso kooperazio funtzionalentzako esparrua?” Tokia: Euskadiren ordezkariak Bruselan**

Mintegi horretan espazio Atlantikorako mota horretako estrategia bat hartzeak izango lukeen balio erantsia eztabaidatu zen. Atlantikorako strategiaren aldeko hainbat ekimenen ostean, Europako Batzordeak kontsulta-periodo bat jarri zuen martxan abuztuan, herritarrei, gobernuei eta elkartei zuzendutakoa. Mintegiaren ondorioak etorkizuneko estategiari buruzko eztabaida areagotzeko balioko dute.

Echenique jaunak, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako zuzendari nagusiak, espazio Atlantikorako estrategia sustatzeko Euskadin egindako jarduerak azaldu zituen. Atlantikoko eskualdeen artean, Batasuneko Atlantikoko eremu geografikorako Europako lehen estrategia martxan jartzeko konpromiso handiagoa hartu duen eskualdeetako bat da Euskadi.

**Mintegia: Kulturaren ekonomia; eskualdeen garapenaren bultzatzailea; Europako kohesio politikaren nabaritasuna. Tokia: Europako Batzordea**

Kulturak tokiko eta eskualdeetako garapenari egin dizkion ekarpenak ezagutzeko Europako Batzordeak eskatutako ikerketaren esparruan, mintegiaren helburua da alderdi eta gomendio garrantzitsuenak identifikatzea, egitura-funtsen laguntzarekin Europako eskualdeek eta hiriek ekonomia, sormena eta berrikuntza sustatzeko strategiak garatu ahal izateko. Txosten hau bihurtzeko bat da EBren etorkizuneko politika kulturalen.

Bilbao Ría 2000 enpresako zuzendari nagusiak, Ángel María Nievak, «Bilbo efektua» aurkeztu zuen. Europan erreferente bihurtu da eta kulturaren bidez egindako eskualde-garapenerako Europako jardunbide egoki gisa identifikatu da.

Fenomeno hori hiri-eraldaketako eta birsortze ekonomikoko prozesu globala da, Bilboko eta orokorrean Euskal Autonomia Erkidegoko bizitza kulturalen, sozialean eta ekonomikoan ondorio zuzenak eragin dituena.

**Mintegia: «Gizarte kohesioa krisi garaian: eskualdeko eta tokiko erantzun berritzaileak» Tokia: Eskualdeetako Lantaldea**

Eskualdeetako Lantaldeko Subsidiarotasun Printzipioa Kontrolatzeko Sareak koordinatu zuen, Europako ehun eskualde eta hiri biltzen dituena, Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra, besteak beste. Mintegiaren helburua gizarte-berrikuntzaren alorrean subsidiarotasun-printzipioa betetzeak eragin ditzakeen emaitza bikainak erakustea izan zen, eta horretarako Europako eskualdeetan abiatutako kasu eta politika zehatzen adibideak eman ziren.

Luis M<sup>a</sup> Ulibarri Innobasqueko Gizarte Berrikuntza arloko zuzendariak Innobasqueren eredia aurkeztu zuen, gizarte-berrikuntza, subsidiarotasuna eta gizarte-kohesioa elkarren artean lotzen dituen. Martxan jartzen diren ekimen guztiak arrakastatsuak izateko gizarte-berrikuntzaren ikuspegu kontzeptualaren beharraz mintzatu zen Ulibarri, baita berrikuntza neurtzeko adierazle zehatzen sistema sortzeko beharrez ere.

### **Open Days jardunaldiekin lotutako tokiko ekitaldia: Itsas Energiari buruzko Nazioarteko III. Konferentzia eta Erakustaldia. Tokia: Bilbo**

Bilbon egin zen Eusko Jaurlaritzak, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE), Tecnaliak eta Iberdrolak antolatutako ICOE 2010 Itsas Energiari buruzko Nazioarteko Konferentzia. European Ocean Energy Association elkartearekin eta The implementing Agreement on Ocean Energy Systems of the Internacional Energy Agency agentziarekin lankidetzan egin zen.

### **VITO furgonetaren erakustaldia Eskualdeetako Lantaldearen egoitzan**

Gasteizko Mercedes Benz fabrikari egiten den VITO furgoneta elektrikoa Eskualdeetako Lantaldeak Bruselan duen egoitzan erakutsi egin zen. Ibilgailuz gain, ibilgailu elektrikoaren euskal estrategiari buruzko informazio-puntu bat instalatu zen.

Janez Potocnik Ingurumeneko Europako komisarioak, baita eskualdeetako eta tokiko autoritateak eta Europako erakunde eta organismoen ordezkariak ere (Open Days jardunaldiak zirela-eta bertaratu zirenak) gertutik ikusi zuten eredia eta interes handia agertu zuten.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia, Euskadiko delegatua Bruselan eta Gasteizko udaleko zinegotzi ohia Alba Cañadas ere bertan egon ziren.

Ekitaldi hori Open Days jardunaldiek antolatzen dituzten ekimenen esparruan egin zen. Eusko Jaurlaritza, Gasteizko udala eta EEE lankide gisa aritu ziren, eta berrikuntzaren eta garapen iraunkorraren alde sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzak sustatzea zuen helburu.

### **Beste batzuk**

Open Days jardunaldiak egiten zirela aprobetxatuz, horietatik kanpo 2. helburuko Europako eskualdeetan funtsak mantentzearen aldeko ekimenak egin ziren. Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritza, Europako eskualdeetako presidente eta ordezkariekin batera, BARROSO presidentearekin bildu zen.

## ONDORIOAK

Eskualdeetako Lantaldeak 2010ean egindako lana balioesteko orduan, gogoan hartu behar da oraindik gairatu gabe dagoen krisi ekonomiko globalean aritu behar izan duela, indarrean sartu berri den Lisboako Tratuaren argitan –zeinak erronkei aurre egiteko esparru politiko eta instituzional egokiagoa ematen dion Europar Batasunari–, eta agintaldi berriak hasi berri dituztela Europako Batzordeak eta Eskualdeetako Lantaldeak.

Hain zuzen ere, 2010ean aplikatu zen Lisboako Tratua lehenbizikoz urte osoan zehar, 2009ko abenduan sartu baitzen indarrean. Tratu horrek erantzukizun berriak jarri ditu Eskualdeetako Lantaldearen eskuetan; horien artean, subsidiariorotasunari buruzko ikuspegi berria, ezinbesteko kontsulta-esparruen hedatzea, eta interes orokorreko zerbitzuak ematerako orduan tokiko eta eskualdeetako erakundeek duten zeregina aitortzea. Eskualdeetako Lantaldeak, halaber, bere interesak subsidiariorotasunaren esparruan defendatzeko eskubidea lortu du, eta prerrogatibak ere bai, Justizia Auzitegiaren aurrean aritzeko.

Politikaren eta antolakuntzaren ikuspegitik, Eskualdeetako Lantaldeak legegintzaldi berri bat hasi du aurten (bosgarrena, hain zuzen ere), eta, horren harian, eraberritu egin ditu kide eta agintari guztiak, bai eta politikoak ezartzea eragin baitu. Presidente eta presidenteorde gisa Mercedes BRESSO eta Ramón Luis VALCÁRCEL SISO aukeratu ziren, hurrenez hurren; legegintzaldiaren bi urte eta erdi igarota karguak trukatu dituzte.

Zuzendaritza berriak hurrengo bost urteetarako lehentasun politikoak aditzera eman zituen, gai hauetan laburbildu daitezkeenak: klima-aldaketaren aurkako borroka, sakonki berrikusitako Lisboako Estrategiaren ezarpena, Europako kohesio-politikaren hobekuntza (inolaz ere berriro nazionalizatzea), EBko finantzen etorkizunari buruzko eztabaidan eskualdeetako eta tokiko interesen txertaketa, tresna juridiko berriaren ezarpena (Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea, LLET) eta tokiko eta interes orokorreko zerbitzuen inguruko Europako strategiaren garapena, eskualdeetako eskumenak errespetatuko dituenak.

Euskadik Eskualdeetako Lantaldeko kide aktiboa izaten jarraitzen du. Erakunde horren partaidetzaren oinarritzko elementua Erkidegoko legeriaren garapenari egiten dizkion ekarpenak dira (zuzenketak eta bestelako tresnen bidez), legeria eraginkorragoa eta eskualdeetako eta tokiko interesari zuzendutakoa sortzeko.

Zentzu horretan, Eskualdeetako Lantaldeak Erkidegoko beste erakundeekin harremanak estutzeko ahaleginekin jarraitu du, osoko bilkuretan eta bileretan parte hartzeraz gona bidatuz eta horiekin benetako elkarriketa ezartzen saiatuz, komitearen

eragin politikoa, erakundeetan duen presentzia, zeregin ordezkatzailerak eta benetako eragina hobetzeko helburuarekin.

Legegintzaldi berri horrek batzorde sektorialak berriro definitzea eragin zuen, baita horiek Europako eskualdeen artean berriro banatzea ere. Legegintzaldi honetarako, Euskadi ENVE eta ECOS batzordeetan sartu zen, Ingurumena, Klima Aldaketa eta Energia Batzordea eta Politika Ekonomikoaren eta Sozialaren Batzordea, hurrenez hurren.

Bestalde, autogintzaren krisiaren inguruko eskualdeetako taldearteko eta legegintzako eskumenak dituzten eskualde eta parlamentuetako (REGLEG-EELB) kide aktiboak izaten jarraitu zuen.

Halaber, Eskualdeetako Lantaldeak antolatutako foroetan Euskadin egindako jardunbide egokien eta politika eraginkorren adibideak ikusi ahal izan ditugu, gure egoera ekonomikoa eta soziala hobetzera bideratutakoak eta Europako gainerako eskualdeekin elkarrengatik ikasteko testuinguruan egindakoak.

## Euskadi Eskualdeetako Lantaldeko aholkularitza-lanean

Erkidegoko arauak aztertzeke lanean, hau da, Eskualdeetako Lantaldearen «aholkularitza-lanean» parte hartzen du Eusko Jaurlaritzak. Europako arau horiek ikusi ondoren Eusko Jaurlaritzak egin dituen zuzenketa adierazten ditu, laburtuta, ondorengo taulak:

Zuzenketa kop.	Sailei egindako iritzi-eskaerak	Jasotako erantzunak	Parte-hartzearen ehunekoa	Irizpenarekiko adostasuna duten eskaeren ehunekoa	Aurkeztutako zuzenketa kop.	Onartutako zuzenketa kop.	Onartutako zuzenketa ehunekoa
45	55	52	% 95	% 71	58	49	% 84

### Eusko Jaurlaritzaren parte hartzea

Eusko Jaurlaritzak, 2010. urtean, Eskualdeetako Lantaldearen 45 irizpen-proiektu aztertu ditu. 2009an lortutako kopuru ia berdina da (46).

Gobernuko sailen erantzun-kopurua oso handia izan da, 2009koa baino askoz handiagoa. Erantzunek egindako eskaeren % 95 osatu dute, iazko % 80aren aldean.

### **Balorazioen kalitatea**

Lortutako erantzun motei dagokienez, hala ere, zuzenketak zituzten eskaeren ehunekoa (% 29) nabarmen jaitsi da 2009ko ehunekoarekin alderatzen badugu (% 38). Horrek esan nahi du aztertutako irizpen-proiektuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako sailen adostasunezko erantzunen ehunekoa areagotu dela: % 72 izan da, iaz, berriz, % 62.

Hala ere, irizpen-proiektuari dagokionez, adostasunezko erantzun gehiago jaso arren, sailek zuzenketa kopuru nabarmen handiagoa idatzi dute 2010ean; guztira 77 izan dira, eta iaz, 53. Hortaz, aurkeztatu zuzenketen kopurua ere handiagoa izan da: 58, aurreko urteko 35 zuzenketen aurrean.

2010ean onartutako zuzenketak 49 izan dira. 2009an 31 izan ziren, hortaz, ondoriozta dezakegu Euskadik 2010ean Eskualdeetako Lantaldean izan duen partaidetza oso ona izan dela eta Euskadik egindako zuzenketen onarpen-maila nahiko altua izan dela (% 84).

### **Irizpena jaso duten proiektuen tipologia**

Eusko Jaurlaritzak gai ugari buruzko iritziak eman ditu irizpen-proiektu ugarian, eta zuzenketen bidez adierazi du bere jarrera. Gaiak aztertuz gero, Eusko Jaurlaritzak iritzi-eskaera gehiago eskatu dituen gaietako buruzko informazioa eskuratuko dugu: kanpo harremanak, Europar integratzea eta erakundeak, eskualde eta kohesio-politika, ingurumena, lurralde-antolamendua eta informazioaren gizartea. 2010eko eta 2009ko irizpenetan landutako gaien kopuruak antzekoak izan ziren, 31 eta 32, hurrenez hurren.

### **Beste eskualde batzuk egindako zuzenketei emandako babes**

Egindako zuzenketez gain, Eusko Jaurlaritzak beste eskualde batzuk egindako 150 zuzenketa babestu zituzten, batez ere estatuko autonomia-erkidegoek egindakoak, baina baita Europako Alderdi Sozialistako (PSE) kide diren eskualde eta udalerrienak ere. Gogoratu behar da, zuzenketak aurkezteko, zuzenketa egin duen kidearen sinaduraz gain, Eskualdeetako Lantaldeko kideen gutxienez 5 sinadura gehiago behar direla.

2010ean beste autonomia-erkidegoek aurkeztutako zuzenketak 238 izan dira guztira, eta 2009ko datuekin konparatuta (256), kopurua murriztu egin da. Denbora-tarte berean Euskadik babestutako zuzenketen kopuruak, hala ere, gora egin du. Hala, 2009an beste eskualdetako 123 zuzenketa babestu zituen bitartean, 2010ean 150 izan ziren. Tresna horrek oso garrantzitsua izaten jarraitzen du Europar Euskadi nabarmentzeko eta gure interesak defendatzeko.

## Gai nagusien inguruko berariazko galdetegiak

Eusko Jaurlaritzak bere iritzia eta esperientzia praktikoa aurkeztu zituen hurrengo gaien inguruan:

- Europa 2020aren inguruko jarrera
- Europa 2020ari buruzko lehen jarraipen txostena
- Batasuna berrikuntzaren alde
- Mugaz haraindiko lankidetzak

## Subsidiarotasunaren azterketa

Subsidiarotasun eta proportzionaltasun-printzipioak betetzen diren aztertze-antolatutako hurrengo kontsultetan parte hartu du Euskadik.

- Biodibertsitate-politikari buruzkoa
- Bide-segurtasunari buruzkoa
- Politika ekonomikoaren koordinazioari buruzkoa

Eusko Jaurlaritzak subsidiarotasun-printzipioa gizarte-berrikuntzan eta energian/klima-aldaketan betetzen den aztertze-antolatutako lantaldeetan parte hartu zuen, hurrenez hurren, Innobasque eta EEERekin batera. Horien bidez gai bakoitzean Euskadin egindako jardunbide egokiak identifikatu eta aurkeztu ziren.

Euskadi gizarte-berrikuntza taldeko burua izateak aukera eman zion gobernuari 2010eko maiatzean Helsinki-Uusimaa Finlandiako eskualdera egindako ikerketa-bisitan parte hartzeko, gizarte-berrikuntzaren alorrean egindako ahaleginengatik ezaguna dena.

## ERKIDEGOKO PROZESU ERABAKITZAILEAN ESKU HARTZEKO BESTE TRESNA BATZUK

### 1) «Autogintzaren krisia» taldeartea

- Taldeartea egindako Europako automobilgintza sektorearen erronkei aurre egiteko eta lurralde-ezarpenera indartzeko neurri adostu eta iraunkorrei buruzko irizpena onartzea.
- Garbiak eta energiaren aldetik eraginkorrak diren ibilgailuei buruzko Europako estrategian inplikatzeko.

### 2) REGLEG-EELB taldeartea

- Jarduera-esparru garrantzitsuei dagokienez, subsidiarotasunaren gaia eta Europa 2020 estrategia identifikatu ziren 2010ean.



### 3) Europako alderdi politikoak eta Espainiako delegazioa

PES Talde Politikoaren jarduerak

- Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako Europako urtea zela eta, PES taldeak bi mintegi antolatu zituen, non Eusko Jaurlaritzako bi txostengilek parte hartu baitzuten.
- PES taldeak 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako argazki-lehiaketa bat antolatu zuen, «Lankidetzaren bila» deitutakoa.

Espainiako delegazioaren jarduerak

- Osoko bilkura bakoitzaren aurreko bileren eta informazio-bileren koordinazioa, bai eta koordinazio teknikoa ere, Espainiako delegazioko kideei eragiten dieten gaietan.

## APARTEKO JARDUERAK

### 4) Eskualdeetako Lantaldeko presidentearen bisita Euskadira (2010eko azaroaren 23-24)

- Mercedes Bressok bisita instituzionala egin zuen Euskadira, eta lehendakariarekin, Eusko Legebiltzarreko presidentearekin eta Gazteizko eta Donostiako alkateekin bildu zen.
- «Gertutasuna, parte-hartzea eta herritarrak» izeneko Europako Lehen Kongresuaren inaugurazioan parte hartu zuen, Kaleidos.red fundazioak antolatutakoa.

### 5) «Euskadi» turismo-markaren aurkezpena Bruselan (2010eko otsailaren 24a)

- Bernabé UNDAk «Euskadi» turismo-marka aurkeztu zuen Eskualdeetako Lantaldearen egoitzan, Bruselan.

### 6) Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako urtea.

- Javier RUIZek Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema aurkeztu zuen Bruselan. Izenburua «Tokiko gizarte-zerbitzuak guztiontzako irigarriak izatea» zen («Hacer los servicios sociales locales más accesibles para todos»), eta eskualdeetako hainbat erakunderen aurrean egin zuen (2010eko ekainaren 8an).

- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuordeak, M<sup>a</sup> Paz LARRUMBIDEK, Brusela Hiriburua eskualdeko parlamentuan Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politika aurkeztu zuen «Abajo y afuera: ¡Más que un techo sobre mi cabeza!».

Estableciendo una Agenda Europea de la Vivienda» izena zuen mintegi batean (2010eko azaroaren 17an).

**7) Kultura zuzendariaren hitzaldia Bruselan, «La cultura como motor del desarrollo económico regional y local» foroaren barruan (2010eko maiatzaren 19an).**

- Eskualdeetako Lantaldearen egoitzan antolatutako foroan Mikel TORALek parte hartu zuen txostengile gisa eta «Bilbo efektua» izenez ezagutzen den hirien birsotze-eredua aurkeztu zuen.

**OPEN DAYS JARDUNALDIAK (2010eko urriaren 4-7)**

- Europako Eskualde eta Hirien Asteak, bere Open Days jardunaldietan, lehiakortasuna, gizarte-kohesioa, lurralde-lankidetzaz eta ekonomia berdea gaiak landu zituen, besteak beste.

- Guillermo ECHENIQUE «Una estrategia integrada para el área atlántica: ¿un marco para la cooperación marítima funcional?» izeneko mintegian txostengile gisa aritu zen, eta Euskadik atlantikorako estrategiarekin duen konpromisoa azaldu zuen.

- «Economía de cultura: impulsor del desarrollo regional –la evidencia de la política europea de cohesión» mintegian, Bilbao Ría 2000 elkarteko (Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin egindako proiektua) zuzendari nagusia den Ángel María NIEVAk «Bilbo efektua» aurkeztu zuen Euskadiren ordezkari gisa.

- Luis M<sup>a</sup> ULLIBARRIK Innobasqueren gizarte-berrikuntzaren eredua aurkeztu zuen «Gizarte kohesioa krisi garaian: eskualdeko eta tokiko erantzun berritzaileak» izeneko mintegian. Gizarte-berrikuntza subsidiarotasunarekin eta gizarte-kohesioarekin lotu zuen eta jardunbide egokien hiru adibide eman zituen.

- Aukera baliatuz, Eusko Jaurlaritzak, EEErekin, Mercedes Benz enpresarekin eta Gasteizko Udalarekin batera, VITO furgoneta elektrikoa aurkeztu eta ezagutarazi zuen Eskualdeetako Lantaldearen egoitzan.

## **I. ERANSKINA**

BATZORDEEN ZERRENDA ETA 5. AGINTALDIAN (2010-2015) IZANGO DITUZTEN EGITEKOAK

<b>LURRALDE KOHESIOAREN POLITIKARAKO BATZORDEA (COTER)</b>
<p>Ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa  Egitura-funtsak  Lurralde-antolamendua  Hiri-politika  Etxebizitza  Garraioa, Europa Barneko Garraioen Sarea (RTE-T) barne  Makroeskualdeak  Lurralde lankidetzak, LLETak barne</p>
<b>POLITIKA EKONOMIKOAREN ETA SOZIALAREN BATZORDEA (ECOS)</b>
<p>Enplegua  Gizarte-politika  Aukera-berdintasuna  Enpresa-politika, lehiakortasuna eta zerga-sistema  Berrikuntza  Ekonomia- eta diru-politika  Barne-merkataritza  MMArekin lotutako gaiak</p>
<b>HERRITARREN, GOBERNANTZAREN ETA KANPO GAIEN BATZORDEA (CIVEX)</b>
<p>Askatasuneko, segurtasuneko eta justiziako eremua  Immigrazio-, asilo- eta bisa-politika  EBko Oinarrizko Eskubideen Gutuna  Herritar aktiboak  Gobernantza  Legegintza hobetzea (karga administratiboak arintzea barne)  EBren Tratatuaren aplikazioa  Auzotasun-politika, Ekialdeko Elkartea eta EBren Mediterraneoko politika  Garapenerako lankidetzak deszentralizatua  Hedapena (<i>mahaiko lantaldeek landu ez dituzten gai globalak</i>).</p>
<b>BALIABIDE NATURALEN BATZORDEA (NAT)</b>
<p>NPB eta landa-garapena  Arrantza  Elikagaien ekoizpena  Osasun publikoa  Kontsumitzaileen babesak  Basogintza</p>

Babes zibila Turismoa
<b>INGURUMENAREN, KLIMA ALDAKETAREN ETA ENERGIAREN BATZORDEA (ENVE)</b>
Klima-aldaketak: egokitzea eta moteltzea Energia berriztagarriak Ingurumena Europa Barneko Energia Sareak Energia-politika berriak Lurralde-garapenerako espazio-politika (Galileo, GMES/Copernicus eta lotutako gaiak)
<b>Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Ikerketa Batzordea (EDUC)</b>
Gazteria Kirola Hezkuntza EBren komunikazio- eta informazio-estrategia Bizitzan zehar ikastea eta prestakuntza Kultura eta kultura aniztasuna Eleaniztasuna eta hizkuntza gutxituen sustapena Ikerketa eta teknologia Informazioaren gizartea eta Europa barneko telekomunikazio-sareak Komunikazioak, ikus-entzunezko industria eta komunikabideen teknologiak

**II. ERANSKINA**

**Kideen zerrenda**  
**Eskualdeetako Lantaldeko Subsidiaritasunaren Jarraipen**  
**Sarea**

2010eko abenduaren 31n

**Legegintzako eskumenak dituzten eskualdeen**  
**ordezkari diren parlamentu edo biltzarrak**

Austria Beherea Estatu Federatuko Parlamentua	<b>Austria</b>
Burgenland Estatu Federatuko Parlamentua	<b>Austria</b>
Karintia Estatu Federatuko Parlamentua	<b>Austria</b>
Vorarlberg Estatu federatuko Parlamentua	<b>Austria</b>
Flandriako Parlamentua	<b>Belgika</b>
Valoniako Parlamentua	<b>Belgika</b>
Brusela Hiriburua Eskualdeko Parlamentua	<b>Belgika</b>
Komunitate Frantseseko Parlamentua	<b>Belgika</b>
Ålandeko Parlamentua	<b>Finlandia</b>
Bavaria Estatu Federatuko Parlamentua	<b>Alemania</b>
Baden-Württemberg Estatu Federatuko Parlamentua	<b>Alemania</b>
Ipar Renania Westfalia Estatu Federatuko Parlamentua	<b>Alemania</b>
Saxonia Beherea Estatu Federatuko Parlamentua	<b>Alemania</b>
Schleswig-Holstein Estatu Federatuko Parlamentua	<b>Alemania</b>
Emilia Romagna Eskualdeko Biltzar Legegilea	<b>Italia</b>
Markak eskualdeko biltzar legegilea	<b>Italia</b>
Sardinia Eskualdeko Biltzar Legegilea	<b>Italia</b>
Toskana Eskualdeko Biltzar Legegilea	<b>Italia</b>
Friul-Venezia Juliako Eskualde Biltzarra	<b>Italia</b>
Abruzzo Eskualdeko Eskualde-biltzarra	<b>Italia</b>
Madeirako Biltzar Legegilea	<b>Portugal</b>
Asturiasko Printzerriko Batzar Nagusia	<b>Espainia</b>
Eusko Legebiltzarra	<b>Espainia</b>
Kataluniako Parlamentua	<b>Espainia</b>
Extremadurako Biltzarra	<b>Espainia</b>
Galesko Nazio-biltzarra	<b>Erresuma Batua</b>
Ipar Irlandako Biltzarra	<b>Erresuma Batua</b>

## Eskualdeko ordezkarietarako gobernuak, legegintzako eskumenak dituztenak

Austriako estatu federatuetako presidenteen konferentzia	<b>Austria</b>
Austria Beherea estatu federatuko Gobernua	<b>Austria</b>
Viena hiriko administrazioa (Magistrat)	<b>Austria</b>
Vorarlberg estatu federatuko Gobernua	<b>Austria</b>
Flandriako Gobernua	<b>Belgika</b>
Bavaria estatu federatuko Gobernua	<b>Alemania</b>
Hessen estatu federatuko Gobernua	<b>Alemania</b>
Saxonia Beherea estatu federatuko Gobernua	<b>Alemania</b>
Saxonia estatu federatuko Gobernua	<b>Alemania</b>
Abruzzo eskualdeko Gobernua	<b>Italia</b>
Bolzano probintzia autonomoko Gobernua (Hegoaldeko Tirol)	<b>Italia</b>
Lombardia eskualdeko Gobernua	<b>Italia</b>
Piemonte eskualdeko Gobernua	<b>Italia</b>
Veteno eskualdeko Gobernua	<b>Italia</b>
Azoreetako eskualdeko Gobernua	<b>Portugal</b>
Eusko Jaurlaritza	<b>Espainia</b>
Kanarietako Gobernua	<b>Espainia</b>
Galiziako Xunta	<b>Espainia</b>
Madrilgo Erkidegoko Gobernua	<b>Espainia</b>
Valentziako Erkidegoko Gobernua	<b>Espainia</b>
Murtziako Eskualdea	<b>Espainia</b>

## Legegintzako eskumenik ez duten tokiko edo eskualdeetako erakundeak

Sofiako Udala	<b>Bulgaria</b>
Zlíneko Udala	<b>Txekiar Errepublika</b>
Auverniako Eskualde Kontseilua	<b>Frantzia</b>
Dunkerqueko Hiri Komunitatea	<b>Frantzia</b>
Eureko Kontseilu Nagusia	<b>Frantzia</b>
Augsburgeko Udala	<b>Alemania</b>
Erlangengo Udala	<b>Alemania</b>
Patraseko Udala	<b>Grezia</b>
Budapesteko Udala	<b>Hungaria</b>
Alessandriako probintzia	<b>Italia</b>
Radviliskiseko udal-barrutia	<b>Lituania</b>
Flevoiland probintziako Gobernua	<b>Herbehereak</b>
Twenteko eta Almelo, Borne, Enschede eta Oldenzaal udalerrietako Hiri Sarea	<b>Herbehereak</b>
Overijssseleko probintzia	<b>Herbehereak</b>
Łódźeko Udala	<b>Polonia</b>
Łódź eskualdeko Gobernua	<b>Polonia</b>

Mazovia eskualdeko Gobernua	<b>Polonia</b>
Polonia Handia eskualdeko Gobernua	<b>Polonia</b>
Pomerania eskualdeko Parlamentua	<b>Polonia</b>
Silesia eskualdeko Gobernua	<b>Polonia</b>
Hunedoarako Udala	<b>Errumania</b>
Tavirako Udala	<b>Portugal</b>
Galazia konderriko Kontseilua	<b>Errumania</b>
Košice eskualde autonomoko Gobernua	<b>Eslovaquia</b>
Nitra eskualde autonomoko Gobernua	<b>Eslovakia</b>
Izolako Udala	<b>Eslovenia</b>
Bartzelonako Diputazioa	<b>Espainia</b>
Ceutako Hiri Autonomoa	<b>Espainia</b>
Madrilgo Udala	<b>Espainia</b>
Göteborgeko Udala	<b>Suedia</b>
Mendebaldeko Götaland eskualdea	<b>Suedia</b>
Skåne eskualdeko Gobernua	<b>Suedia</b>

## Tokiko eta/edo eskualdeetako erakundeen elkarteak

Arku Latinoa	<b>Europako elkarte</b>
Europako Eskualdeen Biltzarra	<b>Europako elkarte</b>
Europako Eskualde Mugakieen Elkarte	<b>Europako elkarte</b>
Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarra (EELB)	<b>Europako elkarte</b>
Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseilua (CMRE)	<b>Europako elkarte</b>
Eurocities	<b>Europako elkarte</b>
Zipreko Udalerrien Batasuna	<b>Zipre</b>
Danimarkako Eskualdeak	<b>Danimarka</b>
Danimarkako Tokiko Gobernua	<b>Danimarka</b>
Asociación de Entes Locales y Regionales de Finlandia	<b>Finlandia</b>
Asociación de Regiones de Francia	<b>Frantzia</b>
Asociación de Alcaldes y Cargos Políticos de Lozère	<b>Frantzia</b>
Asociación alemana de Ciudades y Municipios	<b>Alemania</b>
Asociación de Distritos Alemanes	<b>Alemania</b>
Asociación de Prefecturas de Grecia	<b>Grezia</b>
Sección italiana del Consejo de Municipios y Regiones de Europa (AICCRE)	<b>Italia</b>
Unión de Provincias Italianas (UPI)	<b>Italia</b>
Asociación de Entes Locales y Regionales de Letonia	<b>Letonia</b>
Asociación de Entes Locales de Lituania	<b>Lituania</b>
Asociación Interprovincial de los Países Bajos	<b>Herbehereak</b>
Asociación de Municipios de Rumanía	<b>Errumania</b>
Unión Nacional de Consejos Provinciales	<b>Errumania</b>
Federación Aragonesa de Municipios, Comarcas y Provincias	<b>Espainia</b>
Federación de Municipios y Provincias de Extremadura	<b>Espainia</b>
Asociación de Entes Locales y Regionales de Suecia	<b>Suedia</b>
Asociación de entes locales de Escocia (COSLA)	<b>Erresuma Batua</b>

## Estatuetako delegazioak Eskualdeetako Lantaldean

Eskualdeetako Lantaldeko Irlandako delegazioa	<b>Irlanda</b>
Eskualdeetako Lantaldeko Luxenburgoko delegazioa	<b>Luxenburgo</b>
Eskualdeetako Lantaldeko Maltako delegazioa	<b>Malta</b>
Eskualdeetako Lantaldeko Erresuma Batuko delegazioa	<b>Erresuma Batua</b>

## Estatuetako parlamentuak

Austriako Kontseilu Federala (Bundesrat)	<b>Austria</b>
Frantziako Senatua	<b>Frantzia</b>
Greziako Parlamentua	<b>Grezia</b>